

EUSKADIKO UDAL LEGEAREN
AURREPROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

I.-

Euskadiren instituzionalizazio prozesua, autogobernua berreskuratu zenetik hogeita hamar urte baino gehiago igaro diren arren, bukatu gabe dago oraindik. Izan ere, Autonomia Erkidegoari eta foru-administrazioei dagokienez, amaituta zegoen prozesua, baina, oraindik ere, Euskadiko Udalen Legea geratzen zen onartzeko.

Planteamendu hori aintzat hartuta, Euskadiko Udalen Legea beharrian objektiboa izan da, zalantzan jarri ezin dena. Euskadin, gaur egun, tokiko araudi-esparrua nahiko mugatua dela esan daiteke. Egia da, hala ere, botere politikoa banatzeko daukagun sistema dela-eta, Lurralde Historikoek onartutako foru-arauek tokiko esparruarekin lotutako arlo asko arautzen dituztela, eta badirela, era berean, Eusko Jaurlaritzak bere sasoian onartutako erregelamendu mailako arau gutxi batzuk. Halaber, egia da Eusko Legebiltzarrak legegintza-lan nabarmena egin duela hainbat sektoretan, eta horrek eragin handia izan duela udalen eskumenetan (polizia, hirigintza, ingurumena, gizarte-zerbitzuak, etab.).

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da, zalantzarik gabe, udal-gobernuaren espazioa arautuko duen arau-esparrua. Beraz, Euskadiren barne-antolaketa osatzeko, behar-beharrezkoa zen Udalen Legea onartzea, Erkidego osorako erakundeek, Lurralde Historikoetako foru-organoen eta udalen arteko artikulazio instituzionaleko prozesua ixteko.

Gainera, onartu egin behar da behingoz EAEko udalak Euskadiko erakunde-egituran jarduten duten oinarrizko hiru gobernu-mailetakoa bat direla, eta, beraz, lurraldeko herri-aginte publikoa direla ondorio guztietarako. Beharrezkoa zen, ondorioz, erakundeek artean dagokion lekua egitea EAEko udalei, horrela, udalek aukera izan dezaten —erakundeetan parte hartzeko lege honetan ezarritako organoen bidez— beren herritarrei zuzenean eragiten dieten eta udal-eskumenak baldintzatzen dituzten politika publikoak diseinatu eta gauzatzeko. Udal-autonomiaren defentsa eta bermea, era berean, EAEko udalen beharrian objektiboak dira, eta arau-esparru honek onartu egiten du hori.

Autonomia Estatutuaren 10.4 artikuluan onartzen denez, Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa dauka tokiko gobernu-mailari dagokion erakunde-esparruaren gainean, Estatuak arlo horretan eman ditzakeen oinarrizko legeen kalterik gabe. Baina Euskadiko erakunde-sarean, Konstituzioaren eta Estatutuaren arabera, Lurralde Historikoek zeregin berezia daukate, eta, horren ondorioz, gure botere politikoaren barne-antolaketan, foru-eskumen batzuk tokiko esparruaren arlo jakin batzuetan sartzen dira eta udalerrien araubide juridikoaren alderdi garrantzitsuei eragiten diete. Izan ere, horrela dator jasota Autonomia Estatutuan (37.3 artikulua), eta berariaz onartzen da Autonomia Erkidego osorako erakundeek eta bertako Lurralde Historikoetako foru-organoen arteko harremanetarako

azaroaren 25eko 27/1983 Legean. Eta, jakina, foru-eskumenen barruan dagoen tokiko esparru hori aintzat hartu behar du Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Udalen Legea egin eta onartzean.

Beraz, arlo honetan Lurralde Historikoei dagozkien eskumenen kalterik gabe, Euskadiko Udalen Legearen helburua da —tokiko autonomiaren printzipio konstituzionalari garrantzia berezia emanez— udalen gobernu-mailarentzat erabaki politikoak hartzeko espazio zabalak gordetzea. Horrek nahitaez dakar Autonomia Erkidegoko botereek eta foru-botereek udalen erakunde-esparruan esku hartzeko ahalmenei muga zehatz batzuk jartzea.

II.-

Helburu hori lortzeko eta EAEko erakunde-sarean udalerrien posizioa bermatzeko, Udalen Legea araugintza-politikako helburu batzuen inguruan egituratu da. Helburu horiek, zeharkakoak direnez, zuzenean eragiten dute edukian, eta Legea aplikatzeko orduan gidari izan behar dute.

Udalen Legearen lehen helburua da udalaren (erakunde gisa hartuta) eta herritarren arteko elkarrizketa hobetzea, baita euskal herritarren bizi-kalitatearen garapen iraunkorra bultzatzea ere. Udalerriak —eta zehatzago udalak— dira herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak, eta, beraz, herritarren beharrez ondoen jabetzen direnak. Herritarren beharrez bezala erantzuteak eta herritarren bizi-kalitate arazoizkoa bermatzeak ematen diote legitimazioa udalerriri erakunde gisa. Eta erantzukizun instituzionalak (eskumenak) banatzeko sistema argia eta zehatza ezarri baino ez da lortuko hori. Era berean, horretarako, udalak finantzatzeko sistema egokia ezarri behar da, udalen erantzukizunak zuzen gauzatu ahal izateko eta tokiko zerbitzu publikoak behar bezala eskaini ahal izateko.

Euskadiko Udalen Legearen bigarren helburua udal-autonomia bermatzea da. Horretarako, autonomia horren aitortze formalak egiteaz gain, beharrezkoa da erabat eta benetan bermatzea autonomia hori, EAEko udalek benetako ahalmena izan dezaten udalei dagozkien gaiak eta arazoak oso-osorik beren erantzukizunpean antolatu eta kudeatzeko. Hori dela eta, Legeak udal-autonomia bermatzeko sistema zehatza egituratu du, ohartarazpen mekanismo bat sartuta, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean jasotako printzipioen irakurketa behin-behinean egokia eginez (XXI. mendearen gainean proiektatuta). Hori, zalantzarik gabe, tokiko autogobernua indartzeko orduan, Espainiako estatuan egin den esperientzia aurrendarietako bat da.

Udalen Legearen hirugarren helburua da euskal udalei dagokien lekua ematea euskal botere publikoen artean. Beraz, kontua da udalerrira printzipio demokratikoaren arabera osatutako lurraldeko herri-agintea dela aitortzea. Eta udalerraren legitimitatea eta kalitate demokratikoa, Autonomia Erkidegoko edo Lurralde Historikoetako organo eta erakundeak eratzeko behar den bestekoa da gutxienez.

Printzipio demokratikoa, beraz, EAEko udalen konfigurazioaren oinarrian dago, eta, gainera, udalek herritarren partaidetzarako hainbat baliabide dituzte, dagozkion hauteskunde-prozesuen bidez osatzen den ordezkapen demokratikoko sistemaren kalitatea hobetzen lagundu ahal izateko.

Laugarren helburua (geroago garatuko da zehatzago), zalantzarik gabe, udalerriei ahalmen zabalak ematea da, eskumen propioen sistema batean islatuko direnak; udal-autonomia bermatzeko gutxieneko estandarra izango baita hori. Edo, beste era batera esanda, kontua da udal-eremua, Euskadin, behar bezala zedarritutako botere politiko gisa eratzea, jarduera esparru zehatza emanaz, eta beste gobernu-mailek ez dezatela izan udalaren esparru horretan unean-unean eta ustekabean sartzeko aukerarik.

Eta, azkenik, bosgarren helburua indar-ideia honetan oinarritzen da: EAEko udalerriek finantziazio egokia eta behar bestekoa izan behar dutela, udalerrien eskumenak zuzen gauzatu ahal izateko. Horrela, udal-finantziazioa, udalen berezko eskumenekin batera, Euskadiko Udalen Legearen ardatz bilakatu da. Udal-finantziazioa bermatu gabe, ezinezkoa da zuzentasunez udal-autonomiaz aritzea. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da Euskadiko Udalen Legea, beste lege autonomiko batzuk ez bezala, edo tokiko arloan Estatuak eman duen oinarrizko legeria ez bezala, udal-esparru instituzionalaren lege integrala dela (arloan horretan Lurralde Historikoetako foru-organismoek dituzten eskuduntza garrantzitsuen kalterik gabe); izan ere, udalen berezko eskumenak arautzeaz gain, finantziazio arloan araugintza-erabaki oso garrantzitsuak hartu dira bertan.

Udalen Legea, beraz, funtsezko elementua izango da, EAEko erakunde-sistemaren muin-muineko osagaia, eta, ondorioz, arlo horretan daukan zeregin garrantzitsua dela-eta, Euskadiren instituzionalizazio-prozesua ixten duen legetzat hartu beharko da.

Ondorioz, Udalen Legea eduki instituzional argia daukan legea da, eta Autonomia Estatutua bera garatuz, Lurralde Historikoen Legean ezarritakoa osatzen du (eta, punturen batean, zuzendu edo zehaztu ere egiten du).

Udalen Legearen konfigurazio horrek, lege instituzional gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arbitraje-batzordeak bere sasoian Lurralde Historikoen Legeari buruz emandako doktrinarekin bat etorritik, begibistako ondorioak izan behar ditu Eusko Legebiltzarrak onartutako gainontzeko lege sektorialekiko harremanari dagokionez.

Beraz, legeria sektorialak Udalen Legean edozein aldaketa badakar, Lurralde Historikoen Legerako ezarri denari jarraituz, bermatu egin beharko litzateke, edukian edozein aldaketa egiteko, aldaketa horiek Udalen Legea bera aldatuta edo indargabetuta egitea. Beste era batera esanda, Udalen Legearen edukian zerbait aldatzeko, Udalen Legean bertan egin beharko litzateke aldaketa.

Udalen Legea berariaz eduki instituzionaleko lege gisa eratuta, batez ere, Legearen edukia babestu nahi da, eta, bereziki, babestu egin nahi dira udalerriek berez dituzten eskumenak, aurrerantzean EAEko

legegileek har ditzaketen erabakietatik. Izan ere, Udalen Legean ezarritakoa aldatu edo indargabetu beharko balitz, indargabetzea edo aldaketa zuzenakoa eta berariazkoa izan beharko litzateke, Legeak euskal erakunde-sisteman eta Autonomia Estatutuaren beraren garapenean betetzen duen funtzio instituzionala aintzat hartuta.

III.-

Udalen Legeak, hasieran, atariko titulu bat dauka, hurrengo zazpi tituluak zazpi gai zehatzi buruzkoak dira, eta, ondoren, *beste xedapen batzuk* izeneko titulu orokor bat dator. Azkenik, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen ditu. Atariko tituluan, xedapen orokor batzuek legearen ezaugarriak, legearen helburuak, arau-esparru berri hau zein printzipiotan oinarritzen den, toki-erakundearen ezaugarriak eta erakunde horien erregistro administratiboa lantzen dituzte. Zalantzarik gabe, Autonomia Erkidegoak Estatutuan aitortutako eskumenak ditu tokiko gobernu-sistema arautzeko, eta, zehatzago, udalerriak arautzeko, Estatutuaren 10.4 artikuluan ezartzen denez.

Egia da Erkidegoaren eskumena mugatuta dagoela; batetik, toki-araubideko legerian ezarritakoak edo ezar daitekeenak mugatzen du, eta, bestetik, Lurralde Historikoetako foru-organismoek tokiko esparruko hainbat alderdi garrantzitsuren gainean dituzten eskumenak mugatzen dute, Estatutuaren 37.3 artikuluan eta Lurralde Historikoen Legean ezarritakoarekin bat etorritik. Eskumenen muga bikoitz horrek ez du, ez, errazten EAEko legegileak esparru hau eratzeko duen zeregina. Dena dela, aipatzekoa da Udalen Legeak erabat errespetatzen dituela Estatuko oinarrizko legeria —tokiko autonomiaren gutxieneko estandar gisa hartu behar da legeria hori, eta lege honen bidez puntu batzuk garatu edo indartu baino ez dira egiten— eta Lurralde Historikoetako foru-organismoen berezko eskumenak, araudi honetan behar bezala errespetatzen baitira.

Horrela, bada, erakunde erkideek esparru instituzional honetan dituzten eskumenak garatzen dituen legea da hau. Puntu horretan, EAEko legegileak ondo daki, eskumenen kanpoko eta barneko banaketa kontuan hartuta, legegile mugatua dela. Hori dela-eta, Autonomia Erkidegoak —zentzu hertsian ulertuta— eskumenak dituen puntuetan baino ez du jarduten legegileak. Beraz, gero, foru-botere araugileak, udal foru-arauden bidez zein foru-arau berezien bidez, bere eskumenak gauzatu beharko ditu (orain arte horrela egin izan du) edo, egingarri den kasuetan, lege honetan ezarritako eskumenak garatuko ditu.

Printzipioei dagokienez, legean printzipio-zerrenda zehatza jaso da. Lehenengo eta behin, udal-autonomiaren printzipioa dago; zalantzarik gabe, tokiko autonomiaren printzipioa ondoen adierazten duena da, eta printzipio demokratikoaren arabera udal-autogobernuak daukan dimentsio politikoaren bidez gauzatzen da. Bigarrena finantza-nahikotasunaren printzipioa da; berariaz jasota dago Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean, eta udalerriek beren eskumenak gauzatzeko behar dituzten baliabideak izateko

eskubidean islatzen da. Printzipio horiekin batera, autoantolaketa-printzipioa, hurbiltasun-printzipioa, elkartasun- eta jasangarritasun-printzipioa eta herritarrek tokiko zerbitzu publikoetara jotzeko berdintasunaren printzipioa (tokiko autonomiaren adierazpiderik handiena) azaltzen dira.

Baina zerrenda hori osatu gabe egongo litzateke, printzipio horiek eskumenen betearazpenari nola eragiten dioten zehaztu ezik. Eta Udalen Legeak, hain zuzen ere, arlo horretan jasotzen du finantza-nahikotasunaren printzipioak eskumenetan duen eragina, baita subsidiarotasun-printzipioak, proportzionaltasun-printzipioak eta bereizte-printzipioak ere, oso garrantzitsuak baitira arauak ezartzeko ahala gauzatzeko orduan (EAEko legegileak ahal horiek gauzatzeko orduan eta foru-botere araugileak ahal horiek gauzatzeko orduan), arau-xedapen horien gainean, hala badagokio, egin daitekeen kontrol jurisdikzionalari dagokionez.

Udalerria eta udal-autonomia arautzen dira I. tituluan. Dударik gabe, EAEko tokiko gobernuaren sisteman, Lurralde Historikoen berezitasuna dela-eta, udalerria da tokiko erakunde nagusia. Titulu horren hasieran –eta Tokiko Autonomiari buruzko Europako Gutunean ezarritakoaren arabera– definitzen da noraino heltzen den udalen autonomia, tokiko autonomiaren adierazpiderik handiena den aldetik, zeinak, betiere, udalerraren ardura diren gai publiko guztien antolamendua eta kudeaketa hartzen dituen. Orobat, Lurralde Historikoek eredu instituzionalean duten eginkizuna zehazten da, oinarrizko legerien arabera, udalek berez dituzten eskumenen gauzapena indartzeko balio baitute. Udalerrari buruzko zenbait kontutan Lurralde Historikoek dituzten eskumenak ere zehazten dira I. tituluan.

II. titulua xedea auzotarren estatutua da. Estatutu hori zenbait eskubide eta betebeharrak banatzen da, baita herritarrek informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubideari buruzko printzipioetan eta arauetan ere. Herritarren betebeharren edo erantzukizunen atala izan da, hain zuzen, gutxien garatu ohi dena gure toki-legerian; hala ere, auzotarrek udalerriko partaide izatearen sentimendua areagotu egiten da, herritarrak diren aldetik dituzten erantzukizunak eta herritartasunaren ideiarekin batera doazen balio zibikoak bere gain hartu ahala. Eskubideen katalogoa ere legearen xedea da, eta hori egiterakoan, Europako Kontseiluak azken urteotan gaiari buruz onartu dituen gomendioak hartu dira kontuan (Eskualdeko eta Tokiko Botereen Batzarra). Baina, begi-bistakoa denez, kasu bietan (eskubideak eta betebeharrak) ulertu behar da lege honek osatu egiten duela, eta inola ez baztertu, oinarrizko legeetan ezarritakoa. Orobat aurreikusten da EAEko udalek eskubideen eta betebeharren gutunak onartzea, hala badagokio, Espainiako, Europako eta munduko beste leku batzuetako zenbait hiritan egin duten bezala.

II. tituluko 2. kapituluaren xedea da, berriz, zenbait printzipio eta erregela arautzea, udal-jarduera dela-eta, auzotarrek informazioa

jasotzeko eta parte hartzeko duten eskubidearen gainean. Lege honek oinarri dituen irizpide orokorrak dira, alde batetik, toki-gobernuak gardena izan behar duela bere jarduerari dagokionez, eta, beste aldetik, hein handienez gai hori udalak berak arautu behar duela onartzea, horretarako, arauak ezartzeko eta bere burua antolatzeko dituen ahalak baliatuz. Herritarrek parte hartzea toki-gobernamenduaren gakoetariko bat da, eta, horrenbestez, partaidetza balia dezatela bultzatu beharra dago. Nolanahi ere, organo eskudunek hartu behar dituzte erabaki politikoak; horiek erantzuten baitute politikoki eskumenok zuzen edo oker baliatu izanagatik, hala kontrol-tresnen bidez nola hauteskunderen emaitzen bidez, eta azken horiek ematen duten legitimitate demokratikoaren bidez. Udalen Legeak, beraz, herritarren partaidetza sendotzea du abiapuntu, batez ere informazio-teknologiaren eta komunikazioen arloan; baina, azaldu den bezala, hipotesi honetan oinarritzen da: udalerriek beraiek aukeratu behar dituzte partaidetza hori arautzeko tresnak eta bideak.

III. tituluaren, udal-antolakuntzaren alde jakin batzuk garatu nahi dira, hain zuzen ere, Euskadiko toki-gobernua osatzen duten erakunderen kalitatea hobetzera zuzenduta egonda ere oinarrizko legerian jaso ez direnak. Hemen ere abiapuntua xume-xumea da: Estatuko arauen bidez asko garatu den gai hori dela-eta, oinarrizko legeen egileek aurreikusitakoa alde batera utzita, EAEko legegileak oso ondo daki udalerriek beraiek izan behar dutela aurreikuspen horiek garatzeko berariazko esleipena, arauak egiteko duten ahalen bitartez. Dena den, aukera gisa, eta, edonola ere, orientazio gisa, beste zenbait aurreikuspen jasotzen dira, xede bakar batez: EAEko udalen antolamendu osagarriaren garapena bultzatzea. Horretaz gain, III. titulu horren lehenengo kapituluak agindu bana jasotzen du, populazio handiko udalerrietarako eta populazio txikiko udalerrietarako (kontzeju irekia) aurreikusten diren araubide bereziei buruz.

Bigarren kapituluaren, berriz, antolamenduari dagokionez bestelako kontu praktikoak landu nahi dira, hain zuzen ere, udalerririk txikiak eta beste toki-erakunde batzuk bilduta edo elkartuta sortutako toki-erakundeetan sortzen diren kontuak. Batzuetan, udalerririk txikiak zenbait zerbitzu emateko zailtasunak dituzte, dena delako zerbitzua emateko lanaldi osoko lanpostu bat bete beharrik ez dagoenean, eta, horregatik, funtzionarioentzat lanaldi partzialeko lanpostuak sortzeko aukera ezartzen da. Beste toki-erakunde batzuk bilduta edo elkartuta sortutako toki-erakundeek beren burua antolatzeko baliabideen aukera egokia izan behar dute, lanean hasi berriak direnean batez ere, eta, horretarako, lan-kontratuko langileentzat lanpostuak gordetzeko aukera ematen zaie, betiere lanpostuetan agintea erabili behar ez bada.

III. kapituluaren xedea da oinarrizko legeetan ezarritakoa osatzeko arauak ezartzea, udal-ordezkarien estatutuari dagokionez; nolanahi ere, arau horiek oso mugatuak dira eginkizunei dagokienez. Arau

horrek ere oinarrizko legerian ezarritakoa osatzen du. Izan ere, zalantzarik gabe, Estatuko legegileari dagokio arautzea, printzipio eta arau erkideei dagokienez gutxienez, udal-ordezkarien estatutuaren arloa, baita toki-gobernuaren egoitzan izaten den gehiengoan eta gutxiengoan arteko jokoarena ere, eta, horretarako, oinarrizkoa dena definitu behar du. Horrela, gaur egungo oinarrizko legeriak ezarritako ordezkarien estatutua osatze eta hobetze aldera, zenbait arau aurreikusten dira ordezkarien eskubide ekonomikoei eta oposizioko zereginak errazteari buruz, baita udal-talde politikoei buruz ere.

IV.-

IV. tituluak gai garrantzitsua arautzen du: udalen eskumenak. Kasu honetan, Udalen Legeak EAEko udalerrriak politikan jarduteko adinez nagusizat jotzearen alde egiten du, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean adierazitakoaren ildotik. Hori horrela izanik, testu garrantzitsu horretan ezarritakoaren ildotik, eskumen publikoak, oro har eta lehentasunez, herritarrengandik gertuen dauden aginteei esleitu behar zaizkie, eta, gainera, normalean, udalen eskumen horiek erabatekoak eta osoak behar dute. Horrez gain, gobernuaren beste instantzia bati esleitu ez zaizkion eskumen guztiak gauzatu behar dituzte EAEko udalek, beren erantzukipean erabat, betiere auzotarren premiei erantzutera zuzentzen badira.

Udalen eskumenak, lege honen arabera, udalerrriarenak dira. Horrek esan nahi du Udalen Legeak, eduki instituzionala duen aldetik, toki-autonomiaren gutxienerako estandar bat ematen diela EAEko udalerriei, zeina lege sektorialek ondoren hobetu ahalko duten.

Ezbairik gabe, EAEko legegileak, arlo horri edo sektore material jakin batzuei buruz esleitu zaizkion eskumenak baliatuz, bere eskumenen helmena mugatzeko aukera ere izango du, eta betiere salbuespen gisa. Baina neurri hori hartzekotan, betiere justifikatu beharko du subsidiariorotasun-printzipioarekin eta proportzionaltasun-printzipioarekin bat datorrela, eta, esan den bezala, Udalen Legeak ezarritakoa berariaz eta zuzenean erreformatu beharko du horretarako.

Legeak argiro gehitzen du eskumenen klausula orokor bat, izaera bereko beste lege batzuetan egindakoaren antzera, eta Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak berak ezarritakoari jarraiki, testuak ezartzen baitu toki-erakundeek, betiere legearen esparruaren barruan, beren ekimena gauzatzeko erabateko askatasuna dutela, beren eskumenetik kanpo ez dagoen edo beste aginte bati esleitu ez zaizkion gai guztietan.

Bereziki garrantzitsua da legeak jasotzen duen EAEko udalen eskumenen zerrenda. Zerrendaren ideia nagusia da, alde batetik, udalek arlo material jakin batzuei buruz dituzten ahal orokorrak ezartzea, eta, bestalde, eskumenen gutxienerako estandarra bermatzea beti; eskumen horiek arlo material espezifikoko bakoitzaren barruan zenbait azpigaitan eragiten dutela.

Eskumen-kontuetan udalen autonomia bermatze aldera, eskumenen zerrendak zehazki adierazten du zein gaitan esku hartzen ari diren

udalerrriak, gai horiei buruz dituzten zenbait ahal erabiliz. Horrenbestez, eskumen horietariko asko dagoeneko aurreikusita daude aplikatzekoak diren eta indarrean dauden legeetan; beste gai batzuei dagokienez, berriz, zehaztu egin da zein arlotan zuten eragina udalek baliatzen dituzten ahalek. Udalen Legea toki-erakunde horien eskumenen gutxienerako estandarra bermatzen saiatzen da, udalen eskumenak antolatzeko sistema horren bidez, betiere udal-gobernuen segurtasun juridikoa sendotze aldera, beraien politikak garatzeko orduan. Halaber, EAEko udalei eskumenok behar bezala erabiltzeko behar duten finantziarioa ematen ere ahalegintzen da.

Ildo horretatik, funtsezkoak dira legean udalen eskumenen gainean ematen diren arauak, baita udalen eskumenen eta nahitaezko zerbitzuen artean egiten den bereizketa ere. Izan ere, udalen eskumen zerrenda luze horrek ez du esan nahi udal guztiek eskumen guzti-guztiak erabili behar dituztenik, eta, halaber, ez du zehazten eskumenak zein mailataraino baliatu behar diren. Aitzitik, zerrenda horren bidez zenbait habilitazio-titulu onartzen dira, udal-gobernuek politika publiko jakin batzuk lehenesteko, kasuan kasuko gobernu-taldeek bultzatzen dituzten jarduera-programen arabera. Eskumenak eskualdatzeari eta eskuordetzeari buruzko gutxienerako arauak ere jasotzen ditu legeak, eta arau horien aplikazioa bereizte-printzipioari lotu dakioke. Toki-erakundeen arteko eskumen-gatazken konponbidea arautzen duen agindu bat ere sartzen du. Amaitzeko, azken kapituluan, udalen nahitaezko zerbitzuen araubideari eta zerbitzuok emateari buruzko arau laburrak sartzen dira.

Bereziki inportantea da, halaber, legearen V. tituluan araututakoa, bertan ezartzen baita udalek parte hartuko dutela Erkidegoko erakundeek egiten dituzten politika publikoak prestatzen. Partaidetza hori benetakoa izan dadin, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortzen da, kide anitzeko organo gisa sortu ere, EAEko udalen eta erakunde horien arteko lankidetzaren harremanak gauzatzeko helburuz. Kontseiluan kide kopuru bera izango dute EAEko administrazioko eta udaletako ordezkariak; autonomia organikoa eta funtzionala izango du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari atxikita egongo da, aurrekontuen aldetik.

Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren baitan, Politika Publikoen Udal Batzordea sortzen da. Batzorde horretan, udalerrriak baino ez daude ordezkaturik, eta ohartarazteko mekanismo baten moduan jokatzeko du eginkizun nagusia. Hala, lege-aurreproiektuak edo arauko erregelamenduen xedapenen proiektuak begiratuko ditu, eta alde aurretiko txostena egingo, aurreproiektu edo proiektuok toki-autonomiara egokitzen diren aztertze aldera, eta, hala badagokio, egin beharreko aldaketak ezartze aldera. Horrela, Erkidegoko botere publikoen jardueraren aurrean udalerrien autonomia bermatzeko organo nagusia bilakatuko da Udal Batzordea. Dena den, gobernu-maila horretan izapidetzen ari diren arau-jardueretan, udal-autonomiaren printzipioa urratzeko arriskuaz "ohartaraztera" mugatzen dira bere eginkizunak.

VI. tituluak kapitulu bi ditu. Lehena udalerriak ez diren bestelako erakundeei buruzkoa da. Lurralde Historikoetako foru-organoei ematen zaizkie gai hori arautzeko ahalmenik handienak, betiere tokiko erakundearen lurralde-eremuak ez badu Lurralde Historikoa gainditzen. Autonomia-erkidegoak arautzeko uzten dira, berriz, tokiko erakundeek lurralde-eremua gainditzen duteneko kasuak. Orobat, nobedade gisa, udalerrien sareak gehitzen zaizkio; sare horiek udalerrien arazo jakin batzuetarako konponbide zehatzak eskaini ditzakete eta erakundeen arteko lankidetzarako formula malgua bihurtu daitezke. Hala da, bai, behin eta berriz esaten ari den bezala, udalerrien arteko lankidetzeta-moduak erabat lotuta daude udal-eskumenak behar bezala gauzatzearekin; eta kasu askotan eskumenok egokiro gauzatuko direla bermatzeko lanabes eraginkor bakarrak izango dira, ezinbestez, lankidetzeta-modu horiek.

Titulu horren II. kapituluaren zerbitzu publikoen kudeaketa arautzen da. Era berean, kudeatzeko moduei buruzko arauak zerrendatu baino ez dira egiten, baina berrikuntza puntual bat edo beste jasota. Dena den, kudeatzeko moduen erregulazio horren oinarria da autoantolakuntzako ahalekin oso lotuta dagoen gaia dela onartzea, baita udalerrien beraien arautze-ahalekin ere.

Udalerrien finantziakzioa legearen VII. tituluan lantzen da. Arautze hori da, zalantzarik gabe, EAEko Udalen Legeak eskaintzen duen berezitasun handienetarikoa bat, tokiko araubidea arautzen duten gainerako legeen aldean (Estatukoak zein erkidegoetakoak); izan ere, lege horietan, eta nahiz eta eskumen-gaietan oinarrituta egon, justifikazio handirik gabe, toki-administrazioaren araubide juridikoa eta tokiko finantziakzioa banatu izan dira beti. Eta banaketa horrek, Estatuan, ondorio ezin txarragoak izan ditu gobernuaren tokiko maila garatzeko. EAEko kasuan, ordea, Ekonomia Itunetik ondorioztatzen diren ekonomia- eta finantza-berezitasunak direla-eta, eta Autonomia Estatutuan bertan jasotako arauak direla-eta, komenigarria ez ezik, beharrezkoa ere bada toki-finantziakzioari buruzko zenbait printzipio eta arau sartzea, Lurralde Historikoek eremu material horren gainean dituzten eskumen garrantzitsuak berariaz aitortzearen kalterik gabe.

Aipaturiko VII. tituluak zenbait xedapen orokor jasotzen du lehenengo kapituluaren, non EAEko tokiko ogasunaren printzipioak aurreikusten diren, baita udalerrien finantziakzioa baldintzarik gabekoa izango dela dioen araua ere, baldintzapeko finantziakzioa zenbait betebeharrekin lotuz. Horrez gain, zenbait arau sartzen ditu, besteak beste, zorpetze-araubidearen gainean.

VII. tituluaren II. kapituluaren xedea, berriz, EAEko udalerrien eta gainerako tokiko erakundearen finantziakzioa da. Eta gai garrantzitsu hori arautzerakoan, zentzuzko irizpide bat hartu nahi izan da abiapuntutzat, Autonomia Erkidegoko gobernu-maila guztien interesak (Erkidegoko erakundeak, Lurralde Historikoetakoak eta udalerriak) adiskidetzeko asmoz; horretarako, berebiziko garrantzia ematen zaio Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari, non maila horiek guztiek ordezkariak dituzten.

Azkenik, VIII. tituluan zenbait arautze partzial jasotzen dira, udal-intereseko gaiei buruz. Lehenengo eta behin, aurretiaz legean zehaztuta egon beharra betetzeko (Konstituzioan ezartzen denez), ordenantzaren bidez definitzen diren zigor-prozeduretan aurreikusten da diruzko zigorraren ordeza, araua hautsi duen pertsonak ados egonez gero, balio bereko komunitatearen aldeko lanak egitea, betiere lanok zigorraren balio berekoak badira. Orobat, zenbait aurreikuspen jasotzen dira udalerrien elkarteek negoziazio kolektiboko prozesuetan duten legitimazioari buruz, eta, azkenik, beste zenbait enplegu publiko bateratuaren eskaintzari dagokionez edo IVAPek EAEko udalerrien hautaketa-prozesuak egiteari dagokionez, aldeaz aurretik horretarako itun bat eginda.

Xedapen gehigarriaren helburua da EAEko udalerrien ordezkariak handiena duen Euskadiko udalen elkarteari buruz zenbait kontu arautzea; izan ere, legean eta haren garapenean ezartzen denaren arabera, elkarte horrek eginkizun garrantzitsua bere gain har baitezake arau-esparru honetan taxututako ereduaren kudeaketa politikoan.

Xedapen iragankorrak gaikuntza nazionala duten tokiko administrazioen funtzionarioen araubide juridikoaren zenbait kontu arautzen du, apirilaren 12ko 7/2007 Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen bigarren xedapen gehigarria osatzeko, hala egitea beharrezkoa baita autonomia-erkidegoak bere funtzio publikoari buruzko arauetan gaia behin betiko eta osorik arautu arte.

Xedapen indargabetzaile bat ere sartzen da. Eta, azkenik, Lurralde Historikoen Legearen zenbait kontu zehatz aldatzen dira. Erreforma puntual horrekin, EAEko udalerrien ordezkariak Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan lekua egin nahi zaie, Legean forma tasatuan ezartzen diren gai batzuk lan ditzaten. Kontua ez da, inola ere, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak orain duen osaera aldatzea, organo hori betetzen ari den muiin-muineko eskumenei dagokienez – izan ere, oraindik ere aipatu kontseiluaren osaera EAE osorako administrazioek eta Lurralde Historikoen ordezkari-kopuru bera izatean oinarritzen da –, baizik eta aipaturiko kontseiluari udaletako ordezkariak gehitzea, zeinek botoa eman ahalko duten gai tasatu batzuetan; eta, gainerakoetan, berriz, botoa ematerik izango ez badute ere, beren iritzia entzungo zaie organoaren eztabaida-prozesuan. Hala eta guztiz ere, udaletako ordezkariak gehituta, udalek egin ohi duten eskabide bat asebetetzen da, alegia, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan ahotsa izatekoa, eta, hala balegokio, botoa ere bai. Horrela ixten da, bada, prozesu luze bat, udalerriak euskal sistema instituzionalean behin betiko sartuz amaitzen dena. Azken hiru xedapenek gai hauek jorratzen dituzte: udalerriek Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan parte hartzeko sistema berriaren funtzionamendua; Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren Erregelamendua eratzea eta egitea; eta Eusko Jaurlaritza gaitzea legea erregelamendu bidez garatzeko.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Legearen izaera.

1.- Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoak toki-administrazioaren esparruan dituen eskumenak baliatuz ematen da, lurralde historikoetako foru-organismoek arlo honetan dituzten eskumenen kalterik gabe.

2.- Lege honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko herri-aginteen erakunde-sarean euskal udalek duten posizioa zehazten da.

2. artikulua.- Legearen xedea

Hona hemen lege honen xedeak:

- a) Udalen maila instituzionala, hau da, Euskadiko erakundeen artean duten posizioa eta protagonismoa, aitortzea.
- b) Tokiko autonomia aldezte eta babestea.
- c) Udalen eskumen-erregimena ezartzea eta eskumen horiek gauzatzeko finantza-nahikotasuna bermatuko duen lege-esparrua finkatzea.
- d) Gutxieneko erregimen juridikoa ezartzea udalerrien eta gainerako toki erakundeen antolaketari eta funtzionamenduari dagokienez.
- e) Erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzaren sistema bat eratzea politika publikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko, betiere, politika horiek udalek edo gainerako toki-entitateek burutzen badituzte edota horien partaidetza eskatzen badute.

3. artikulua.- Printzipioak

1.- Udalek araugintzan eta jarduera betearazlean printzipio hauek beteko dituzte:

- a) Udal-autonomiaren printzipioa.
- b) Finantza-autonomiaren printzipioa.
- c) Autoantolaketa-printzipioa.
- d) Hurbiltasun-printzipioa.
- e) Elkartasun- eta jasangarritasun-printzipioa.
- f) Herritarrek tokiko zerbitzu publikoetara jotzeko berdintasunaren printzipioa.
- g) Araugintzako autonomiaren printzipioa.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoetako organismoek, beren eskumenak gauzatzean, nahitaez bete beharko dituzte artikuluko honetako 1. paragrafoan jasotzen diren printzipioak.

3. Era berean, EAEko eta lurralde historikoetako organismoek, tokiko erakundeen intereseko gaiei buruzko arauak ematen dituztenean, printzipio hauek bete behar dituzte araugintzan:

- a) Udalen finantza-nahikotasuna, esleituta dituzten eskumenak gauzatzeko.
- b) Subsidiariorotasuna.
- c) Proporzionaltasuna.
- d) Desberdinketa, betiere, printzipio hori aplikatzea bideragarria bada kasuan kasuko udalen edo, hala badagokio, toki-entitateen kudeaketa-ahalmena kontuan hartuta.

4. artikulua.- Toki-entitateak

- 1. Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauek izango dira toki-entitateak:
 - a) Udalerriak
 - b) Udalerriaren azpitik dauden tokiko lurralde-entitateak, tradizioen eta lurralde bakoitzeko foru-araudiaren arabera.
 - c) Udalerrien mankomunitateak
 - d) Beste edozein entitate, baldin eta tokiko lurralde-entitate zenbait biltzen baditu, dagokion izendapen bereziarekin —Arabako Lurralde Historikoko koadrilak edo beste figura batzuk, adibidez—, eta lege honetan eta aplikagarri den gainerako legerian ezarritakoaren arabera sortu bada.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren entitateek nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko ahalmen osoa izango dute.

5. artikulua.- Toki-entitateen erregistroa

- 1. Udalerriek eta aurreko artikuluan aipatzen diren gainerako toki-entitateek lege honen indarrez sortutako EAEko Toki Entitateen Erregistroan inskribatuko dira. Erregistro horretan egiten diren idatzoharrak estatuko dagokion erregistroari ere jakinaraziko zaizkio.
- 2. Erregistroaren antolaketa- eta funtzionamendu-erregimena erregelamendu bidez arautuko da.

I. TITULUA.- UDALERRIA: UDAL-AUTONOMIA.

6. artikulua.- Udalerria.

- 1.- Udalerria Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeko oinarrizko toki-entitatea da.
- 2.- Udalerria, orobat, ordezkaritza-politikoaren lehen instantzia da, eta herritarrek tokiko gai publikoetan parte hartzeko bide hurbil-hurbila.

7. artikulua.- Udal-autonomia.

1.- Euskal udalerriek autonomia dute interes publikoko hainbat eta hainbat gai antolatzeke eta kudeatzeko, betiere, legeak eta, hala badagokio, foru-arauak beteta.

2.- Udalerriek beren erantzukizunpean eta herritarren onurarako jardungo dute beti.

3.- Euskadin, udal-autonomiak eduki politikoa ere izango du. Hortaz, autonomia horrek antolatzeke eta kudeatzeko ematen duen ahalmenak aukera emango die tokiko gobernuei zerbitzuak emate hutsetik haratago doazen berezko politikak zehazteke eta gauzatzeko.

4.- Udal-autonomiaren barruan sartzen da, edonola ere, interes publikoak udalerraren barruan antolatzea, udalaren gobernu- eta administrazio-organoak antolatzea eta kudeatzea, udalerriko lurraldea antolatzea, tokiko zerbitzuak arautzea eta ematea, ekimen ekonomikoa, udalerraren zerbitzura diharduten langileen esparruko politika eta kudeaketa, ondarea eta diru-bilketa eta ogasun-baliabideak administratzea eta erabiltzea.

5.- Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoetako herri-administrazioei dagozkien koordinazio-ahalmenek ez diote inolaz ere eragingo Euskadiko udalerrien eta gainerako toki-entitateen autonomiari.

8. artikulua.- Udalerriri lotutako aldaketak

1. Udalerriak sortu edo kendu; udalerriko mugak aldatu edo zedarritu; udalerrien izena edo hiriburutza aldatu; bandera, entseina edo armarrria onartu edo aldatu eta tituluak eman behar direnean, lurralde historikoetako foru-organoek emandako araudia aplikatuko da.

2. Lurralde historiko desberdinetako udalerrien artean mugaketa-arazoak sortzen badira, autonomia-erkidegoko organo eskudunak ebartziko ditu.

II. TITULUA.- AUZOTARREN ESTATUTUA: BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK. INFORMAZIOA ETA PARTE-HARTZEA.

I. KAPITULUA.- AUZOTARREN BETEBEHARRAK, ERANTZUKIZUNAK ETA ESKUBIDEAK.

9. artikulua.- Auzotarren betebeharrak eta erantzukizunak

1.- Auzotarren betebeharrak eta erantzukizunak dira:

a) Legez aurreikusitako prestazio ekonomiko eta pertsonalen bidez, udal-eskumenak gauzatzen laguntzea.

- b) Udalei gorabehera pertsonalen aldaketak jakinaraztea baldin eta, ondorioz, erregistroko nahitaezko inskripzio-datuak aldatu behar badira.
 - c) Tokiko arauak betetzea eta horiek aplikatzeko laguntza ematea. Ildo horretatik, espazio publikoan bizikidetzak-neurriak urratzen badira, horren berri eman behar diete tokiko agintariei.
 - d) Udal-ondarea, azpiegiturak, udal-zerbitzuak eta udal-altzariak zentzuz eta egoki erabiltzea eta horiek kontserbatzen eta zaintzen laguntzea.
 - e) Espazio publikoan herritarren bizikidetzarako arauak errespetatzea eta, era berean, besteen eskubideak ere errespetatzea.
 - f) Ingurumena, espazio publikoa eta hiri-paisaia zaintzea eta hobetzen laguntzea jarrera ekologiko eta jasangarrien bitartez.
 - g) Legeetan eta udal-ordenantzetan, bereziki espazio publikoaren erabilerak arautzen dituztenetan, aurreikusitako beste edozein.
- 2.- Aurreko paragrafoan araututako betebeharrak eta erantzukizunak,
- b) idatz-zatian aurreikusitakoa izan ezik, udalerrian aldi baterako edo luzarorako dauden pertsonak ere bete beharko dituzte, auzotar izan ez arren.

10. artikulua.- Auzotarren betebeharrak eta erantzukizunak

Hauek dira auzotarren eskubideak:

- a) Hautesle eta hautagai izatea, hauteskunde-legedian xedatutakoaren arabera.
- b) Tokiko politika publikoak egiten eta kudeatzen parte hartzea, aplikagarri diren legeetan, ordenantzetan eta erregelamenduetan xedatutakoaren arabera.
- c) Ingurumen eta hiri-espazio publiko egokia eta jasangarria izatea.
- d) Erraz iristeko moduko ingurunea izatea, desgaitasunen bat duten pertsonen joan-etorriak eta parte-hartzea ez oztopatzeko.
- e) Zerbitzu publikoak modu eraginkorren eta berdintasun-baldintzetan eskuratzea, lege honetan eta kasuan kasuko ordenantzetan ezarritakoaren arabera. Ahalegin berezia egingo da zerbitzu horiek genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek erabil ditzaten eta, horiekin batera, langabetuek, desgaituek, erretiratu eta pentsiodunek, gazteek, ekonomia-baliabiderik gabeko pertsonak eta zehatz daitezkeen gizarte-egoera ahuleko gainerako kolektiboek.
- f) Udal-esparruan eragin dezaketen arrisku natural zein teknologikoei eta babes zibileko udal-planei buruzko informazioa jasotzea.
- g) Kulturarako eskubidea eta ondare historikoko ondasunetara iristekoa.
- h) Hizkuntza ofizial bietako edozein erabiltzea eta aukeratutakoan atenditua izatea toki-administrazioarekiko harremanetan, herritarren hizkuntza-eskubideak arautzen dituen autonomia-erkidegoko legeriaren arabera.
- i) Informazioa jasotzea eta parte-hartzea, titulu honetako 2. kapituluaren aurreikusitako moduan.

- j) Udal-espedito eta -dokumentazio osoari buruzko informazioa jasotzea, eskabide arrazoitua eginez gero, eta udal-administrazioari eskabideak egitea, aplikagarri den legeriaren arabera.
- k) Zerbitzu publiko bat nahitaezko udal-zerbitzua denean, zerbitzu hori emateko edo, hala badagokio, ezartzeko eskatzea.
- l) Legeetan edo, hala badagokio, foru-arauetan eta udal-ordenantzetan ezarritako gainerako eskubideak.

11. artikulua.- Auzotarren betebeharrak, erantzukizunak eta eskubideen kartak.

Euskal udalerriek auzotarren eskubide, betebeharrak eta erantzukizunen kartak onartu ahal izango dituzte ordenantza bidez. Bertan, eskubide horiek bete ezik udalak hartuko dituen konpromisoak eta herritarren betebeharrak eta erantzukizunak ez errespetatzeak izango dituen ondorioak ere jasoko dira.

2. KAPITULUA.- INFORMAZIOA ETA PARTE-HARTZEA.

12. artikulua.- Auzotarren eskubidea informazioa jasotzeko eta parte hartzeko.

1.- Udalek beren jardueri buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta auzotar guztiek herriko bizitzan parte hartzeko aukera sustatuko dute. Parte-hartze hori zuzeneko edo elkarte orokor edo sektorialen bidezkoa izan daiteke.

2.- Euskal udalek, auzotarrekiko harremanetan, gardentasun eta partaidetza printzipioak beteko dituzte politika publikoak eratzeko prozesuan, gobernu onaren eta administrazio onaren printzipioak bermatzeko.

13. artikulua.- Informazioa eta bilkuren publikotasuna.

1.- Herritar guztiek dute eskubidea euskal udalen eta gainerako toki-entitateen organoen erabakiak egiaztatzen dituzten agiriak jasotzeko, baita artxibategi eta erregistroak kontsultatzeko ere, oinarrizko legerian aurreikusitakoaren arabera.

2.- Osoko bilkurak jendaurrekoak dira. Euskal udalek ahalegina egingo dute osoko bilkurak grabatzeko eta, hala badagokio, beren egoitza elektronikoaren bitartez zabaltzeko. Hala ere, eztabaida eta bozketa sekretuak izan daitezke Konstituzioaren 18.1 artikuluko oinarrizko eskabideari buruzkoak direnean, betiere, gehiengo osoak hala erabakitzen badu.

3.- Tokiko gobernu-batzarraren bilerak ez dira inoiz jendaurrekoak izango.

4.- Desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, artikulua honetan aipatzen den bilkuren informazioa eta publizitate-erregimena bitarteko eta formatu eskuragarrien bidez emango da. Udalak edo bestelako toki-entitateak eskubide hau bermatzeko bitarteko egokiak ez dituenean, baliabide horiek badituzten beste herri administrazioen laguntza instituzionala eskatu ahal izango du, interesdunak hala eskatzen badu.

14. artikulua.- Herritarren parte-hartzea eta tokiko autoantolaketarako ahalmena.

1.- Parte hartzeko moduak, bitartekoak eta prozedurak lege honen arabera arautuko dira, tokiko araugintza-ahalmenak erabiliz.

2.- Edozein kasutan, herritarrek parte hartzeko moduak, prozedura eta organoak udalen berezko araugintza-ahalmena eta autoantolaketarako ahalmena erabiliz gauzatuko dituzte euskal udalek, eta, horrela, herritarrek tokiko bizitza publikoko gaietan izan behar duten parte-hartze eraginkorra sustatuko dute. Parte hartzeko modu horiek ez dute inolaz ere gutxituko oinarrizko legerian eta lege honetan araututako ordezkartza- eta gobernu-organoen erabakitze ahalmena.

15. artikulua.- Herri-galdeketak

1.- Estatuko legeriarekin bat, alkateek, udalbatzak gehiengo osoz hala erabaki ondoren eta estatuko gobernuaren baimenarekin,

herrikideen interesarentzat garrantzi handia daukaten gaien buruzko iritzia galde diezaioke herriari baldin eta gaiok udalaren eskumenekoak eta toki-administrazioaren ingurukoak badira. Toki-ogasunari dagozkion gaiez, ordea, ezin izango da galdeketa egin.

2.- Galdeketa horiek egiteko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

16. artikulua.- Herriarren ekimenak

1.- Udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea duten auzotarrek herri-ekimena baliatu ahal izango dute. Ildo horretatik, akordio-proposamenak edo ordenantza-proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte udalaren eskumen diren gaietan, lege honetan ezarritakoaren arabera.

2.- Aurreko paragrafoan aipatzen diren ekimenak onargarriak diren ala ez udalaren udalbatzak eztabaidatu eta bozkatuko du, nahiz eta, gero, gaiaren arabera eskumena duen organoak izapidetu eta ebatzi ahal izango dituen. Edozein modutan, udalaren idazkariaren legezketasun-txostena beharko da eta, hala dagokionean, baita kontu-hartzailearena ere.

3.- Herri-ekimenei herri-galdeketa proposamena har dezakete barruan. Horrelakoetan, galdeketa-proposamena aurreko artikuluan aurreikusitako prozeduraren eta eskakizunen arabera izapidetuko da.

4.- Artikulu honetan aurreikusitako ekimenak udalerriko auzotarren ehuneko hamarrak sinatu behar ditu, gutxienez.

17. artikulua.- Parte-hartzea eta informazioaren eta komunikazioen teknologiak.

1.- Euskal udalek, tokiko berrikuntzarako politiken barruan, informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera interaktiboa sustatuko dute, bai parte-hartzea eta auzotarrekiko komunikazioa sustatzeko eta errazteko —dokumentuak aurkezteari, administrazio-izapideak edo inkestak egiteari edota, hala badagokio, herri galdeketa egiteari begira—, bai udal-jarduera osoari buruzko informazioa emateko.

2.- Euskal udalek, gainera, auzotar guztien eta, bereziki, gazteen parte-hartze politikoa sustatuko dute informazioaren eta komunikazioen teknologien bitartez.

3.- Azaroaren 23ko 17/2009 Legearen aplikazio-esparruan sartutako zerbitzu-jardura bati eta horren gauzatzeari buruzko prozeduren eta izapideen kasuan, zerbitzua ematen duten pertsona fisiko edo juridikoek prozedura eta izapide horiek leihatila bakar baten bidez egin ahal izango dituzte, elektronikoki eta urrutitik, salbu eta egitekoa zerbitzua emateko erabiltzen den tokia edo ekipoa ikuskatzea bada.

4.- Era berean, udalek ahaleginak egingo dituzte zerbitzua ematen duten pertsona fisiko eta juridikoek aukera izan dezaten leihatila bakarraren bitartez jardura bati eta horren gauzatzeari buruzko informazioa eta formularioak jasotzeko edota agintari eskudunek

beraien eskabideei buruz emandako ebazpenak eta gainerako jakinarazpenak ezagutzeko.

5.- Udalerriek foru-aldundien lankidetzak izango dute, estatuko oinarrizko legerian aurreikusitakoaren arabera, baldin eta, ekonomiarako eta kudeaketarako gaitasun nahikorik ez dutelako, aurreko bi paragrafoetan ezarritakoa behar bezala bete ezin badute. Lankidetzak hori beste entitateekiko lankidetzarako formulen bitartez bideratu ahal izango da, indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera.

III. TITULUA.- UDALERRIAREN ANTOLAKETA ETA UDAL-ORDEZKARIEN ESTATUTUA

I. KAPITULUA – UDALERRIAREN ANTOLAKETA.

18. artikulua.- Printzipio orokorrak.

1.- Euskal udalek toki-araubidearen oinarrizko legerian aurreikusitako beharrezko organoak izango dituzte, eta legeria horren eta lege honen esparruaren barruan gauzatu ahal izango dute antolaketarako araugintza-ahalmena.

2.- Beharrezko organoen funtzionamenduak, erabakiak hartzeko erregimenak eta organo horietako kideen estatutuak toki-araubidearen oinarrizko legerian eta lege honetan xedatutakoa bete beharko dute. Edozein kasutan, gobernu-jarduera bermatuko da, eta ordezkaritza-organotan gutxiengo politikoak errespetatuko dira, horien legitimazio demokratikoaren printzipioa betez.

3.- Gainerako organo osagarrietan, udalek beren eskumenak erabiliz emandako antolaketa-araudietan ezarritakoa beteko dute, lege honetan aurreikusitakoarekin bat.

19. artikulua.- Alkatehurrengoak.

1.- Euskal udalek alkatehurrengoak izan ditzakete.

2.- Udalean Alkatehurrengotza sortzen denean, figura horrek oinarrizko legedian agertzen den Alkateordetza ordezkatu du. Figura horren zereginak, izendatzeko eta kargutik kentzeko prozedurak, baita eskumenak ere, oinarrizko toki-araubidean alkateordeentzat ezarritako berberak izango dira.

20. artikulua.- Alkatearen eskuordetzeak.

Populazio handiko udalerrietarako indarrean dagoen oinarrizko legeriaren kalterik gabe, gainerako euskal udalerrietan alkateak bere eskumenak eskurdetzan eman ahal izango dizkie, ez bakarrik tokiko gobernuari, alkatehurrengoei edo alkateordeei eta zinegotziei, baita titulu honetako II. kapituluan arautzen diren zuzendaritzako langileei ere.

21. artikulua. Populazio handiko udalerriak.

1.- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 121. artikuluekin bat, Bilbao, Donostia-San Sebastián eta Vitoria-Gasteizko udalerrien antolamendu-araubidea aipatutako 7/1985 Legearen X. tituluan populazio handiko udalerrientzat aurreikusten dena izango da.

2.- Legez ezarritako ekonomia-, gizarte-, historia- edo kultura-baldintzak bereziak betetzen dituztelako, 7/1985 Legearen 121. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatian aurreikusitako kasuan egon daitezkeela uste duten EAEko gainerako udalerriek, populazio handiko udalerrien antolamendu-araubideari heldu nahi badiote, dagokion erabakia hartu beharko dute osoko bilkuran, eta eskabide arrazoitua bidali beharko diote Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean toki-araubidearen arloko eskumenak dituen organoari.

22. artikulua.- Kontzeju irekiko erregimena.

1. Udal-hauteskundeetarako deialdia egiten den egunean biztanleen udal-errodan 100 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak kontzeju irekiko erregimenaren arabera eratuko dira. Erregimen berezi hori 100 eta 250 biztanleen arteko populazioa duten udalerriek ere izan dezakete, baldin eta tradizioz erregimen horren arabera jardun badute edo dagokien lurralde historikoko foru-administrazioari horretarako eskabidea egiten badiote, lurralde historikoetako foru-organoei emandako araudian ezarritako prozeduraren arabera.

2. Ehun biztanle edo gehiago duten udalerriek kontzeju irekiko erregimenean badihardute –tradizioz edo dagokion foru-administrazioak onartuta– eta erregimen orokorrera aldatu nahi badute, eskabidea egin beharko diote lurralde historikoko foru-organoei eskudunari, foru-araudian ezarritako prozeduraren arabera.

3. Kontzeju irekiko erregimenean, udal-gobernua eta -administrazioa alkateari eta auzotarren batzarrari dagozkie. Kontu-batzorde berezi bat ere egongo da, auzotarren batzarrak onartu beharreko kontu guztiak, aurrekontukoak eta aurrekontuz kanpokoak, begiratu eta aztertzeko eta horiei buruzko txostena egiteko. Organo horien funtzionamendua aplikagarri diren eta behar bezala egiaztatuta dauden tokiko usadio, ohitura eta tradizioen arabera izango da. Horrelakorik egon ezean, arau hauek beteko dira:

- a) Alkateak gutxienez alkaterode bat izendatuko du, bere zereginetan laguntzeko eta bere ordezkari jarduteko kanpoan edo gaixorik dagoenean edo ordezkaria izatea beharrezkoa den beste edozein egoeratan.
- b) Auzotarren batzarra udalerriko hautesle guztiek osatuko dute. Toki-araubideari buruzko legeriak udalaren udalbatzari esleitzen dizkion eskuduntzak izango ditu. Gainerako zereginak alkateari dagozkie.
- c) Kontu-batzorde bereziak, gutxienez, hiru kide izango ditu, auzotarren batzarrak izendatuak. Funtzionamendu-erregimena auzotarren batzarrak erabakitakoa izango da.

II. KAPITULUA.- LANGILEEN ARLOKO XEDAPEN BEREZIAK

23. artikulua.- Lanaldi partzialeko lanpostuak

Jarduera edo zerbitzu bat emateko funtzionario baten lanaldi osoko dedikazioa behar ez denean, 5.000 biztanletik beherako udalerriek lanaldi partzialeko funtzionario-lanpostuak sortu ahal izango dituzte beren lanpostuen zerrendetan.

24. artikulua.- Lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuak

Beste toki-entitate batzuk bilduta edo elkartuta sortutako toki-entitateek lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuak sortu ahal izango dituzte lanpostuen zerrendetan, betiere, lanpostu horietan agintea erabili behar ez bada.

III. KAPITULUA.- UDAL-ORDEZKARIEN ESTATUTUARI BURUZKO XEDAPENAK.

25. artikulua.- Udal-ordezkarrien erregimena.

- 1.- Euskal udal-ordezkarrien erregimen juridikoa toki-araubidearen oinarrizko legerian eta hauteskunde-legerian orokorrean ezarritakoa izango da, eta lege honetan xedatutakoa osagarri izango da.
2. – Udalerrria osatzen duten ordezkarien kopurua, hautatzeko prozedura, agintaldiaren iraupena eta hautaezintasun eta bateraezintasun arrazoiak hauteskunde-legerian daude jasota.
- 3.- Udal-ordezkariek oinarrizko legerian orokorrean ezarrita dauden eskubideak eta betebeharrak izango dituzte.

26. artikulua.- Udal-ordezkarrien ekonomia-eskubideak eta dedikazio-erregimena.

- 1.- Udal-ordezkariek toki-araubidearen oinarrizko legerian ezarritako ekonomia-eskubideak eta dedikazio-erregimenak izango dituzte.
- 2.- Gastu publikoa hobeto harmonizatzeko, Tokiko Politika Publikoen Kontseiluak, 42. artikuluan arautuak, ordainsarien taula bat proposatu ahal izango du, gomendio gisa, udalerriko populazioa eta udal ordezkarien dedikazioa –osoa edo partziala– kontuan hartuta.

27. artikulua.- Oposizioa.

Bost mila biztanletik gorako euskal udalerriek oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, dedikazio partziala izatea bermatuko dute, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko. Hogei mila biztanletik gorako udalerrietan, dedikazio hori osoa izango da.

28. artikulua.- Udaleko talde politikoak.

- 1.- Udal-ordezkariek talde politikoetan antolatuko dute beren burua, eta oinarrizko legerian eta lege honetan ezarritako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte, salbu eta atxiki gabeko kideak, horien ekonomia-eskubideak eta eskubide politikoak ezingo baitira izan jatorrizko taldean jarraitu izan balute izango lituzketenak baino gehiago.
- 2.- Talde polikoek diru-izendapenak jasotzeko eskubidea izango dute, beren zereginak duintasunez burutu ahal izateko.

29. artikulua.- Euskal udal-ordezkarrien etika eta gobernu onaren kodea.

- 1.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak euskal udal-ordezkarrien Etika eta Gobernu Onaren Kode bat proposatuko du, gomendio gisa, ordezkari horiek eredugarri izan daitezen eta ordezkarien zereginen legitimazioa indartu dadin herritarren artean.
- 2.- Euskal udalek, autoantolaketakoko eskumenak baliatuz, aukeran izango dute etika edo gobernu onaren bestelako kodeak onartzea edo aurreko paragrafoan ezarritakoa garatzea.

IV. TITULUA.- UDALEN ESKUMENAK.

1. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

30. artikulua.- Printzipio orokorrak.

1.- Euskal udalen eskumenak oinarrizko legerian, lege honetan edo Eusko Legebiltzarraren beste lege batzuetan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira.

2.- Euskal udalen eskumenak zehazteko, hala badagokio, herritarrarekiko hurbiltasun handiena hartuko da kontuan printzipio gisa. Era berean, gai edo jarduera publikoaren zabaltasuna edo izaera, toki-entitateen kudeaketa-gaitasuna edo eraginkortasun- edo ekonomia-beharrak ere baloratuko dira.

3.- Lege honen 2. artikuluan ezarritakoari jarraituz, gerora emandako lege baten bidez lege honetan udalari ematen zaion eskumen bat beste gobernu-maila bati esleitzen bazaio, esleipen horrek subsidiarioritasun-printzipioa izango du oinarri, eta neurri horren proportzionaltasuna justifikatu beharko da. Nolanahi ere, honako eskakizun hauek bete beharko dira:

a) Lurralde historikoaren edo autonomia-erkidegoaren esparruan, jarduera bateratua beharrezkoa izatea, baitezpadakoa delako.

b) Laguntza teknikoaren edo lege honetan zein foru-arauetan ezarritako udalartekotasun-formulen bitartez homogeneotasun nahikoa lortu ezin izatea.

c) Foru-entitateei edo autonomia-erkidegoko entitateei esleitutako zeregin zehatzak behar-beharrezkoak izatea udalez gaindiko interesak asetzeko.

31. artikulua.- Ahalak

1.- Euskal udalek toki-araubidearen oinarrizko legerian ezarritako ahal guztiak izango dituzte.

2.- Gainerako toki-entitateek ere izango dituzte ahal horiek, beren zergak jartzekoa eta desjabetzekoa izan ezik, baina, betiere, aplikagarri zaizkien legeetan eta foru-arauetan ezarritako salbuespenak eta mugak errespetatuta.

2. KAPITULUA.- UDALEN ESKUMENAK.

32. artikulua.- Eskumen-klausula orokorra.

1.- Hurrengo artikuluan aipatzen diren eskumenen kalterik gabe, euskal udalek eskumena izango dute beste edozein eskumen antolatu eta kudeatzeko, betiere, beste gobernu-maila bati berariaz esleituta ez badago eta udalerriko erkidegoaren beharrak asetzeko bada.

2.- Era berean, euskal udalek jarduera eta zerbitzu osagarriak izan ditzakete beste herri-administrazio batzuenak osatzeko.

33. artikulua.- Udalen eskumenak.

1.- Artikulu honetan aipatzen diren euskal udalen eskumenak, berezko eskumenak izango dira.

2.- Eskumenak bikoiztuta daudenean, koordinazio- eta lankidetzaprintzipioen arabera jardungo da, beharrezko ez diren bikoiztasunak saihesteko eta herritarrei zerbitzuak modurik onenean eta eraginkorrean ematen zaizkiela bermatzeko.

3.- Euskal udalek eskumen hauek izango dituzte:

1) Ikuskizunak, jolas-jarduerak eta horiek egiten edo antolatzen diren establezimendu publikoak. Gai honetan, udalen eskumenek, autonomia-erkidegoko legerian zehazten diren kasuetan eta esparruan, arlo hauek hartzen dituzte:

- Ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko establezimenduetan zerbitzu-jarduerak abiarazteko baldintzak eta eskakizunak finkatzea eta horien inguruko kontrola, zaintza, ikuskapena eta zehapen-erregimena zehaztea, establezimenduok jendearentzat irekiak direnean.

- Ikuskizunen, jolas-jardueren eta horiek egiten diren establezimendu publikoen inguruko lizentziak eta baimenak ematea, salbu eta, indarrean dagoen legeriaren arabera, nahikoa bada alde zuzeneko jakinarazpena edo erantzukizuneko adierazpena egitea.

2) Animaliak babesteko eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araudia garatzea eta aplikatzea.

3) Polizia eta herritarren segurtasuna: Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartzen dituzte:

- Herritarren segurtasunari lotutako prebentzio-politikak zehaztea eta aplikatzea udalerrian, beste administrazio batzuekin koordinatuta.

- Esparru publikoetan eta jendearentzat irekitako lokaletan herritarrek izan behar dituzten bizikidetzaharremanak ordenantza bidez arautzea.

- Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera ordenantza bidez arautzea.

- Udaltzaingoa sortu, antolatu, planifikatu eta kudeatzea, poliziarri eta segurtasun publikoari buruzko legerian xedatutakoaren esparruan.

4) Babes zibila eta suteak saihestea eta itzaltzea. Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartuko dituzte beti:

- Babes zibileko eta suteak saihesteko eta itzaltzeko planak egitea eta onartzea. Plan horiek koherenteak izan behar dute, eta koordinatuta egon behar dute udalaz gaindiko administrazioek egindakoekin.

- Prebentzio-neurriak eta, hala badagokio, erreakzio-neurriak ezartzeko ordenantzak onartzea suteei, uholdeei edo bestelako ezbehar edo hondamenei lotuta.

- Babes zibileko udal-egiturak, suteak saihesteko eta itzaltzeko zerbitzuak eta salbamendu-zerbitzuak sortzea eta kudeatzea.

- Suteetan edo hondamen-egoeretan herritarrak babesteko behar diren aparteko neurriak hartzeko agintzea, beste erakunde batzuek esparru horretan dituzten eskuduntzen kalterik gabe. Neurri horien artean sartzen dira, besteak beste, auzotarrak mobilizatzea, ekipoak konfiskatzea edota eraikinak utzaraztea.

- Babes zibilaren arloan herritarren parte-hartzea boluntariotzaren bitartez bultzatzea eta boluntarioen erakundeen sorrera sustatzea.

- Aurreikuspen eta prebentzioko udal-programak egitea eta gauzatzea arlo horretan eskumena duten beste administrazioekin lankidetzan.

5) Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina. Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartuko dituzte, beste herri-administrazioen eskumenen kalterik gabe:

- Hiri antolamendurako plan orokorrak egitea eta izapidetzea eta hasierako, behin-behineko eta, hala badagokio, behin betiko onarpena ematea.

- Plangintza orokorra bateragarri egiteko balio duten antolamendu-planak eta -tresnak egitea, izapidetzea eta onartzea, eragindako udalerriekin adostuta.

- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua, bilakaera, kudeaketa eta diziplina finkatzea.

- Antolamendu xehatuaren planak egitea eta izapidetzea eta behin-behineko eta behin betiko onarpena ematea.

- Xehetasun-azterketak, hirigintza-antolamenduko ordenantza osagarriak, katalogoak eta hirigintza-antolamenduko beste tresna batzuk egitea eta izapidetzea eta behin betiko onarpena ematea.

- Sektorizatzeko-planetarako alde aurreko baimena ematea eta horiek egitea, izapidetzea eta onartzea.

- Hirigintzako egikaritze-tresnak egitea, izapidetzea eta onartzea.

- Hirigintzako baimenak ematea, hala badagokio, salbu eta alde aurreko jakinarazpena edo erantzukizuneko adierazpena egitea dagokionean.

- Hirigintzako legezketasuna babestea eta hirigintza-antolamendua berrezartzea.

- Hirigintzako arauak hausteagatiko zehapen-prozedura finkatzea.

- Azpiegitura publikoak zertzeko programak egiten eta diseinatzeko parte hartzea, azpiegitura horiek udalerritik igarotzen direnean.

6) Etxebizitzaren inguruko plangintza, programazioa eta kudeaketa egitea. Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartuko dituzte beti:

- Etxebizitzaren inguruko plangintza egitea eta gauzatzea eta autonomia-erkidegoko etxebizitza-plangintza egiten eta kudeatzen parte hartzea.

- Etxebizitzak sustatzea eta kudeatzea, autonomia-erkidegoari esleitutako eskumenaren kalterik gabe eta horrekin koordinatuta eta lankidetzan.

- Zuzkidura-ekipamenduak eta etxebizitza babestuak antolatzea, sustatzea, kudeatzea, esleitzea eta kontrolatzea, horien kategoriatan dela: udalak arautuak, eraiki berriak edo hirigintzako birgaitze-edo berritze-plan berezien ondoriozkoak.

7) Ingurumenaren sustapena, defentsa eta babesa eta garapen jasangarria, ingurumenari buruzko legeriaren arabera. Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartuko dituzte beti:

- Ingurumena babesteko, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, garapen iraunkorra bultzatzeko eta natur ondarea eta biodibertsitatea babesteko udal-politikak formulatzea eta kudeatzea.
 - Ingurumenari buruzko udal-ordenantzak egitea eta onartzea.
 - Sailkatutako jardueretarako baimenak ematea, aldez aurreko jakinarazpena edo erantzukizuneko adierazpena egin behar denean izan ezik, eta, udalaren esku-hartzearen esparruko jardueri dagokienez, jagotea, kontrolatzea, ikuskatzea, gainbegiratzea eta zehatzeko ahalmena erabiltzea, betiere, ingurumenari buruzko araudiari jarraituz.
 - Ingurumenaren inguruko informazio eta heziketarako jarduerak bultzatzea eta programatzea, jasangarritasuna sustatzeko.
 - Ingurumenaren arloko plangintza egiteko orduan, parte-hartze eraginkorra izatea.
 - Ingurumena babesteko jarduerak antolatzea, planifikatzea, programatzea eta egikaritzea zaraten eta bibrazioen esparruan.
 - Udalaren esku-hartzearen esparruko jardueri dagokienez, jagotea, kontrolatzea, ikuskatzea, gainbegiratzea eta zehatzeko ahalmena erabiltzea, betiere, ingurumenari buruzko araudiari jarraituz.
- 8) Osasun publikoa sustatzea, defendatzea eta babestea, droga-menpekotasunaren inguruko gaiak barne hartuta. Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartuko dituzte beti:
- Tokiko Osasun Plana egitea, onartzea, ezartzea eta gauzatzea, autonomia-erkidegoko plangintzarekin bat.
 - Osasunaren lehen mailako arretaren kudeaketan parte hartzea.
 - Tokiko eta erkidegoko ekintza-politikak garatzea eta osasunean duten eragina ebaluatzea.
 - Osasuna sustatzeko, osasun-gaietan hezteko eta osasuna babesteko programak egitea, babesgabetasun- edo arrisku-egoeran dauden pertsoneri arreta berezia eskainita.
 - Mugikortasuna antolatzea irizpide hauek kontuan hartuta: jasangarritasuna, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa; jarduera fisikoaren sustapena eta istripuak saihestea.
 - Pertsonen bizitzeko eta harremanetarako erabiltzen dituzten eraikinen eta tokien osasun kontrola egitea.
 - Elikagaien banaketaren osasun-kontrol ofiziala egitea.
 - Pertsonen kontsumorako uraren kalitatearen osasun-kontrol ofiziala egitea.
 - Industrien, garraioen, jardueren eta zerbitzuen osasun-kontrola egitea.
 - Espazio publikoen osasungarritasuna kontrolatzea.
 - Kostaldeko eta barrualdeko bainu-guneen osasun kontrola egitea.
 - Hazlearen behar pertsonaletarako animaliak hiltzeari buruzko osasun-arauak betetzen direla zaintzea.
 - Hiri-izurriak kontrolatzea.
 - Hilerrien osasun arloko kontrola eta hileta-tokien osasun arloko polizia.

9) Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea. Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartuko dituzte beti:

- Erabiltzaile eta kontsumitzaileak defendatzeko eta babesteko udal-ordenantzak egitea eta onartzea.
 - Erabiltzaile eta kontsumitzaileei kontsumoaren inguruko informazioa eta heziketa ematea eta beren eskubideei eta eskubideok erabiltzeko modurik eraginkorrenari buruzko orientabidak eta aholkuak ematea.
 - Enpresei eta profesionali kontsumoaren inguruko informazioa eta orientabideak ematea.
 - Kontsumitzaileek aurkeztutako keak, erreklamazioak eta salaketak aztertu eta izapidetzea eta, hala badagokio, bitartekaritza edo arbitrajea egitea.
 - Kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoak sortzea, kudeatzea, antolatzea eta ebaluatzea beren lurralde-eremuan.
 - Kontsumoko arbitraje-sistema sustatzea, hedatzea eta, hala badagokio, kudeatzea autonomia-erkidegoko Administrazioarekin lankidetzan, indarrean dagoen legerian ezarritakoari jarraituz.
 - Ikuskapenak egitea eta zehatzeko ahalmena erabiltzea, autonomia-erkidegoko legerian ezarritako helmena eta ahalmenak errespetatuta.
 - Kontsumitzaile eta erabiltzaileen osasunari eta segurtasunari edo ekonomia-interesei eragiten dieten krisi- edo larrialdi-egoeretan, premiazko neurriak hartzea eta beharrezko lankidetzak eskatzea.
 - Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarrekin sustatzea eta babestea.
- 10) Hilerriak antolatu, planifikatu eta kudeatzea.

11) Gizarte-zerbitzuak antolatu, planifikatu eta kudeatzea. Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartuko dituzte beti:

- Gizarte-zerbitzuen arloan, beren zerbitzuak antolatu, planifikatu eta kudeatzea.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako gizarte-arloko udal-zerbitzuak planifikatzea autonomia-erkidegoko eta foru-aldundietako administrazioen plangintza estrategikoari eta gizarte-zerbitzuen mapari jarraituz.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortu, antolatu eta kudeatzea.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko oinarrizko gizarte-zerbitzuak ematea, zerbitzu horiek arautzen duen legeriaren arabera.
- Arrisku-egoeran dauden adingabeak babestea, lurralde historikoen eskumenen kalterik gabe.
- Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea sustatzea eta bultzatzea, herritarren parte-hartzea sustatzea, elkartegintza eta boluntariotza bultzatzea eta erabiltzaileen eta profesionalen partaidetza bultzatzea gizarte-zerbitzuen kudeaketan eta ebaluazioan.
- Prestazio eta zerbitzuei buruzko informazio eguneratua zabaltzea beren lurralde-eremuan.

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari parte hartzen duten eragile eta profesionalen prestakuntza sustatzea eta bultzatzea, gainerako euskal herri-administrazioekin koordinatuta.

- Ikuskatzea eta zehatzeko ahalmena erabiltzea beren titulartasuneko zerbitzu, zentro eta entitateen kasuan edota udalaren eskumen diren zerbitzuak ematen dituzten zerbitzu, zentro eta entitate pribatuen kasuan, berdin delarik zerbitzu horiek itun, kontratu edo, hala badagokio, hitzarmen baten ondorioz ematen dituzten.

Hala badagokio, Gizarteratzeko Euskal Plana gauzatzean onartzen diren gizarteratzeko udal-egitarauak egitea eta garatzea.

- Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko prozedurak izapidetzea eta ebaztea eta, hala badagokio, laguntza horiei dagozkien ordainketak egitea, horien jarraipena eta kontrola egitea eta zehatzeko ahalmena erabiltzea beren eskumeneren esparruan.

12) Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea uraren ziklo integralean, kasuan kasuko esparru-erregelamenduen arabera. Gai honetan, udalen eskumenerak arlo hauek hartuko dituzte beti:

- Uraren goi-hornidura, honako hauek barne: ur-baliabideak bildu eta azaleratzea eta kudeatzea, baliabide ez-konbentzionalak sortzea barne; potabilizazio-tratamendua; arteria edo hodi nagusietatik garraiatzea eta herriguneen buruko andel erregulatzailerekin biltzea.

- Uraren behe-hornidura, honako hauek barne: banatzea, tarteko biltegietara eramatea eta kontsumorako ura hartune partikularretara edo erabiltzaileentzako instalazioetara eramatea eta banatzea.

- Herriguneetako hondakin-urak garbitzea edo batzea eta, udal-estolderiaren bitartez, kolektore orokorretara edo tratatzeko bildu behar diren lekura eramatea.

- Herriko hondakin-urak araztea, hau da, biltzea, kolektore orokorren bitartez garraiatzea, tratatzea eta efluenta ur-masa kontinentaletara edo itsasora isurtzea.

13) Argiteria publikoko zerbitzua antolatzea, kudeatzea eta ematea.

14) Etxeko hondakinak eta, hala badagokio, merkataritzako hondakin ez arriskutsuak kudeatzeko zerbitzuak antolatzea, ematea eta kontrolatzea eta hondakin horien ekoizpena murrizteko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea, goragoko lurralde-mailarako plangintzarekin bat.

15) Bideak garbitzeko zerbitzua antolatzea, kudeatzea eta ematea.

16) Pertsonen garraio publikoko hiri-zerbitzuak —garraiatzeko modua dena dela— antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere, garraioa udalerraren barruan egiten bada osorik.

17) Kirola sustatzea eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea. Gai honetan, udalen eskumenerak arlo hauek hartuko dituzte beti:

- Lurralde historikoetako foru-organoek onartutako eskola-kiroleko programak eta kirola pertsona guztien artean zabaltzeko programak gauzatzea foru-organo horiekin koordinatuta.
 - Udalaren kirol-ekipamenduak eraikitzea, handitzea eta hobetzea eta horiek kudeatzea eta mantentzea.
 - Udalaren kirol-ekipamenduen erabilera arautuko duten ordenantzak egitea eta onartzea.
 - Osorik beren lurren barruan egiten diren kirol-agerpen eta -lehiaketak antolatzea eta, hala badagokio, baimentzea, bereziki herrikoiak badira edota eskola-adina duten edo arreta berezia behar duten pertsonen zuzenduak badira.
 - Udalerriko kirol-plangintza formulatzea, autonomia-erkidegoaren eta foru-aldundien eskumenen kalterik gabe.
- 18) Kultur jarduerak planifikatzea eta kudeatzea eta kultura sustatzea. Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartuko dituzte beti:
- Liburutegi, agiritegi, museo eta museo-bildumen inguruan, udal-plangintza eta -proiektuak egitea, onartzea eta gauzatzea.
 - Beren kultur erakundeak kudeatzea, kultur ekipamenduak eraikitzea eta kudeatzea eta udalerriko beste batzuekin koordinatzea.
 - Era guztietako kultur jarduerak antolatzea eta sustatzea eta arte-sorkuntza eta -produzioa eta kultur industriak bultzatzea.
 - Euskadiko Liburutegi Sistemari eta Euskadiko Irakurketa Sare Publikoan parte hartzea.
- 19) Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
- 20) Turismoaren arloan, udalek esparrutan izango dituzte eskumenak beti:
- Beren turismo-baliabideak eta interes bereziko jaiak sustatzea.
 - Beren lurraldean dauden tokiak, ondasunak eta zerbitzuak interes turistikodun izendatzea.
 - Tokiko turismo-informazioko zerbitzua ematea.
 - Autonomia-erkidegoko turismo-sektorea planifikatu eta sustatzeko bitartekoen formulazioan parte hartzea.
 - Udalaren titulartasunpeko turismo-azpiegiturei buruzko politika diseinatzea.
 - Beste administrazio batzuekin lankidetzan jardutea partekatutako inguruneak eta baliabideak sustatzeko.
- 21) Hezkuntzaren arloan, udalek esparrutan izango dituzte eskumenak beti:
- Irakaskuntzaren programazioa egiten eta nahitaezko eskolatze-aldia betetzen dela zaintzen parte hartzea.
 - Haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea eta hezkuntza-administrazioari behar dituen orubeak eskaintzea herri-ikastetxe berriak egiteko.
 - Herri-ikastetxeen instalazioen eskola-orduetatik kanpoko erabilera kudeatzea, autonomia-erkidegoko administrazioan hezkuntza-arloan

eskumena duen sailarekin koordinatuta eta berariaz ezarritako prozeduren bitartez.

- Udalaren musika-eskolak kudeatzea, eskumena duten autonomia-erkidegoko erakundeekin hitzarmena egin ondoren. Hitzarmen horretan zehaztuko da jarduera horiek finantzatzeko sistema.

22) Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena. Gai honetan, udalen eskumenek arlo hauek hartuko dituzte beti:

- Autonomia-erkidegoko plangintzaren esparruan, tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena sustatzea.

- Tokiko garapena bultzatzeko plan estrategikoak egitea.

- Ekonomia-sektoreen beharrei eta tokiko lan-merkatuaren bilakaerari buruzko azterketak egitea.

- Enpleguko udal-politika aktiboak gauzatzen laguntzea, politika aktiboak gauzatzeko eskumena duen administrazioaren lankide diren aldetik. Ildo horretatik, enplegu-politika aktiboari buruzko programak eta neurriak kudeatzen parte hartuko dute; zehazki jarduera hauek gauzatu dituzte:

lan-bitartekotza

enplegagarritasuna, gizarte-inklusioa eta berdintasuna sustatzea lan-merkatuan

enplegurako lanbide-heziketa

enplegu autonomia eta enplegua sortzen duten enpresa-ekimenak sustatzea

tokiko enplegua sustatzea

- enpresa berriak jartzeko azpiegiturak sustatzea

- era guztietako ekonomia-jarduerak sustatzea, bereziki merkataritzari, turismoari eta artisautzari lotuak

- hornidura-azokak antolatu, kudeatu eta sustatzea eta horien inguruko diziplina ezartzea eta salmenta ibiltaria eta ez-sedentarioa arautzea.

- aldi behin egiten diren feriak eta azoka txikiak baimentzea eta horiek egiteko leku fisikoaren egokitzapena sustatzea

- Produktu bereziak sustatzeko ekitaldiak eta erakusketak antolatzea eta, hala badagokio, baimentzea.

23) Euskararen arloan, udalek esparrutan izango dituzte eskumenak beti:

- Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta betearaztea.

- Gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzea, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

- Udalaren esparruan euskara erabiltzea arautuko duen udal-ordenantza idatzi eta onartzea.

- Autonomia-erkidegoko administrazioarekin lankidetzan aritzea helduak euskalduntzen, aldez aurretik gaiari buruzko hitzarmena sinatu ostean, jarduera horiek finantzatzeko sistema zehazteko.

24) Berdintasunaren eta edozein eratako bereizkeria desagerraraztearen arloan, udalek esparruotan izango dituzte eskumenak:

- Udalaren esparruan berdintasunaren gaia orokorrean antolatu eta plangintza burutzea.

- Udal-administrazioan berdintasunaren ikuspegia barneratzeko azpiegiturak, programak eta prozedurak zehaztu eta garatzea, eta enplegu publikorako berdintasunerako planak onartzea.

- Programa edo zerbitzuak aurkeztea, bereizkeria jasaten dutenek oinarrizko gizarte-eskubideez baliatzeko aukera izan dezaten bermatzeko.

- Gizonek zein emakumeek norberaren bizitza, familia eta lana batera eraman ahal izateko dauden baliabideak eta zerbitzuak antolatu eta kudeatzea, dituzten ezaugarriengatik udalek eskaini behar badituzte.

- Udal-esparruan gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

- Etorkinak hartu eta gizarteratzea.

25) Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantenimendua arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.

26) Biztanleen udal-errola kudeatzea.

27) Hiltegiak antolatu eta kudeatzea.

28) Herritarrek parte hartzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak ezarri eta garatzea.

29) Udalarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak zaintzea eta mantenimenduaz arduratzea.

30) Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu (motordunak zein bestelakoak) eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna eta pertsona eta merkatalgaien garraioa antolatu, kudeatu, sustatu eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.

31) Herri barruko trafikoa eta aparkatzeko moduak arautzea eta antolatzea.

32) Bake-epaitegiek beren eginkizunak aurrera eramateko baliabide materialak eta giza baliabideak jartzea, legerian esaten denaz bat.

33) Parkeak eta lorategiak.

34) Gazteriaren arloan, udalek esparruotan izango dituzte eskumenak beti:

- Gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak antolatu, kudeatu, ikuskatu, kontrolatu eta zehatzea.

- Gazteentzako zerbitzuen udal-plangintza eta -programazioa egitea, erkidegoko eta aldundiko planifikazioarekin bat.

35) Garapenerako lankidetzaren arloan, udalek esparruotan izango dituzte eskumenak, bereziki:

- Udalek garapenerako duten lankidetzaren tekniko eta ekonomiko finantzarioa antolatu, programatu eta kudeatzea, eta beste horrenbeste ekintza humanitario eta larrialdiko egoerentarako ekintzen kasuan.
- Garapenaren aldeko lankidetzarako programak eta ekintzak betearaztea.

34. artikulua.- Udal-eskumenen eraginkortasuna

- 1.- Lege honen aurreko artikuluan euskal udalei aitortzen zaizkien eskumenak gutxieneko eskumenak izango dira. Lege baten bidez, eta dagokion finantziarioarekin, eskumen horiek areagotzea egongo da, eta baita ahalmen eta eginkizun berriak ematea ere, lege honen 33. artikuluan aipatzen diren gaien inguruan.
- 2.- Lege honetan jasotzen diren eskumenak udalek bakoitzak bere kabuz edo lege honen VI. tituluan nahiz Lurralde Historikoetako kasuan kasuko foru-arauetan aurreikusitako udal arteko formulen bidez eramango dituzte aurrera.
- 3.- Lege honetan zehaztutako eskumenek dena delako gaien udalek duten araugintzako eta betearazteko esparrua adierazten dute. Ez dira, inola ere, derrigorrez eskaini beharreko zerbitzuak. Udalek, beren politikekin eta gastatzeko ahalmenaz bat, herritarrei zein zerbitzu eskaini lehenetsi beharko dute, titulu honetan aitortutako eskumenekin bat.
- 4.- Foru Aldundiek, oinarrizko legerian esaten denaz bat, dena delako Lurralde Historikoko udalei laguntza teknikoa eskainiko diete, lege honen bidez udalei ematen zaizkien eskumenak benetan gauzatuko dituztela bermatu ahal izateko, baldin eta udalok beren kasa edo beste batzuekin elkartuta ezin badituzte aurrera eramanez.
- 5.- Lurralde Historikoek, beren araudian eta oinarrizko legerian esaten denaz bat, laguntza ekonomikoa emango diete udalerriei, udalerrian inbertsioak egin, jarduerak burutu eta zerbitzuak eskaini dituzten. Era berean, udalerriko oinarrizko zerbitzuak ere eskainiko dituzte, udalerriak behar beste baliabide edo gaitasun ez badu horiek eskaintzeko, baina udalerriak hala egiteko eskatuz gero. Lurralde Historikoetako foru-arauek laguntza emateko eta zerbitzuak eskaintzeko betebeharrak hori arautu beharko dute.
- 6.- Era berean, Lurralde Historikoek udalerrien eskumenak gauzatzea bermatu ahal izango dute, udalerrien eskumenekoak diren zerbitzuak eskaintzeko udalen arteko sareak sortzea bultzatuz, hain zuzen ere lege honetan eta, halakorik izanez gero, foru-arauetan zehazten denaz bat.

36. artikulua.- Eskumenak eskuordetzea eta eskualdatzea.

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoak eta Lurralde Historikoek eskumenak eskuordetu edo eskualdatzeko aukera izango dute, eta udalerrien edo tokiko erakundeen esku utzi, gaur egun indarrean den araudiaren arabera eta, Lurralde Historikoei dagokienez, eskumena duten foru-organoei erabakiko dutenaren arabera.

2.- Eskualdatu eta eskuordetzearen bidez, bereizte-printzipioa gauzatzeko aukera egongo da, batez ere behar besteko neurria eta eskualdatutako edo eskuordetutako eskumenak eraginkortasunez betetzeko kudeaketa-gaitasun nahikoa duten udalerriekin aplikatzeko.

37. artikulua.- Eskumenak eskualdatzea.

- 1.- Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez, berez autonomia-erkidegoarenak diren eskumenak udalerrien esku uztea egongo da.
- 2.- Eskualdatzea egiten duen lege edo foru-arauan eskualdatze horren erregimen juridikoa zehaztu beharko da.
- 3.- Autonomia-erkidegoak edo kasuan kasuko Lurralde Historikoak, egoki iritziz gero, antolatu, plangintza egin, koordinazio orokorraz arduratu edo kontrolatzeko ahalmenak beren eskuetan gordetzea erabaki ahal izango dute.

38. artikulua.- Eskumenak gauzatzea eskuordetzea.

- 1.- Autonomia-erkidegoak eskumenak euskal udalerriei edo beste toki-erakunde batzuei eskuordetzeko aukera izango du, eta hori Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez egin beharko da.
- 2.- Dena den, eskumena eskuordetzan emanda ere, toki-erakundeak bere burua antolatzeko duen ahala errespetatu beharko da. Eskumen bat eskuordetzan emanaz gero, erabateko erantzukizunez gauzatuko da, nahiz eta zuzendaritza- eta kontrol ahalmenak gorde daitezkeen.
- 3.- Eskuordetzea benetan burutzeko, toki-erakundeak berariaz onartu beharko du; gainera, baliabide materialak, zuzkidura ekonomikoak nahiz finantzieroak laga, eta, beharrezkoa bada, giza baliabideak ere jarri beharko dira.
- 4.- Eskuordetzeari buruzko dekretuan, gutxienez kontuok zehaztu beharko dira:
 - a) Eskuordetzea zuritzen duten lege-arauak.
 - b) Zein eginkizun betearaztea eskuordetu den.
 - c) Zein baliabide material, ekonomiko nahiz finantzario edo giza baliabide jarriko diren toki-erakundearen esku, eta baita balorazioa eta berrikusteko prozedura ere.
 - d) Zerbitzuaren benetako kostuaren balorazioa.
 - e) Eskuordetzea zein egunetan gauzatuko den, eta zenbateko epea izango duen.
 - f) Autonomia-erkidegoak jarritako baldintzak, emandako instrukzio edo jarraibideak, jarritako kontrol-bideak, berarentzat gordetako ahalmenak, eta errekerimenduak egiteko zehaztutako prozedura; azken horren arabera, eskuordetzea ezeztatzea ere gerta daiteke.
 - g) Eskumena eskuordetzan jasotzen duen toki-erakundeak izango dituen betebeharrak.
- 5.- Eskuordetzea bideratzen duen dekretuan ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, gerta daiteke eskuordetzea bertan behera uztea eta eskumen horiek berriz ere Eusko Jaurlaritzak bereganatzea, alde

aurretik toki-erakundeak dioena entzun eta Gobernu Kontseiluak hala erabaki ostean. Toki-erakundeek uko egin ahal izango diote eskuordetzeari, eskuordetzeari buruzko dekretuan zehaztuko diren kasuetan. Kasu horietan, Eusko Jaurlaritzak zehaztuko du eskuordetutako eskumenak gauzatu edo ez gauzatzearen ondoriozko baliabideak eta kargak nola likidatuko diren.

6.- Lurralde Historikoek toki-erakundeei eskuordetzeak zein erregimenetan emango dizkieten kasuan kasuko foru-araudian zehaztuko da.

39. artikulua.- Eskumen-gatazkak

1.- Autonomia-erkidegoko toki-erakundeen arteko eskumen-gatazkak autonomia-erkidegoan toki-erregimenaren arloko eskumenak dituen administrazio-organoak izapidetu ebatziko ditu.

2.- Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan jarri ahal izango da errekurtsioa, dagokion legeriak diotenaren arabera.

3.- Gatazka positiboa denean, gaiak eragiten dion toki-erakundeak bertan behera utziko ditu bere jarduerak, EAEn toki-erregimenaren arloko eskumenak dituen organoak eskumenez baliatzeari uzteko eskatzen badio. Errekerimendua egon arren ere, eskumen-gatazkaz ebatzi aurretik ematen badu ebazpena, ebazpen hori erabat deuseza izango da.

4.- Erregelamendu bidez zehaztuko da zein izango den gatazka horiek konpontzeko prozedura.

III. KAPITULUA. DERRIGORREZKO ZERBITZUAK

40. artikulua. Derrigorrezko zerbitzuak.

1.- Derrigorrezko udal-zerbitzuak izango dira oinarrizko toki-legerian halakotzat jotzen direnak, autonomia-erkidegoko legeriaren barruan.

2.- Euskal aginte publikoek, bakoitzak bere eskumenak gauzatzean, elkarlanean jardungo dute euskal udalerri guztiek derrigorrezko zerbitzuok berdin eskain ditzaten, biztanle-kopurua dena delakoa izanik ere, eta udaloi beharrezko finantziazioa emango diete.

41. artikulua.- Foru-aldundiaren dispentsa.

Udalerri batek erakusten badu, behar bezala arrazoituta, ez duela derrigorrezko zerbitzu bat eskaintzeko behar beste baliabide edo bitarteko, lurralde horretako Foru Aldundiari zerbitzu hori eskain dezala eskatu ahal izango dio, kasuan kasuko foru-araudian aurreikusten den prozeduraz bat.

V. TITULUA.- UDALERRIEK POLITIKA PUBLIKO AUTONOMIKOAK ZEHAZTEN PARTE HARTZEA TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN EUSKAL KONTSEILUA

42. artikulua. Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua

1.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua kide anitzeko organoa da, eta duen eginkizuna euskal udalerrien eta erakunde autonomikoen arteko lankidetzaren instituzionala bideratzea da, erabakiak autonomia-erkidegoaren mailan hartzen direnean udalerrien interesak ere neurtuko direla bermatzeko.

2.- Euskal Lurralde Historikoetan, autoantolaketaarako aitortuta ditzuten ahalekin bat, foru-organismoek tokiko politika publikoen kontseiluak sortzeko aukera izango dute, eta aurreko paragrafoan deskribatutako eginkizun eta helburuak izango dituzte.

43. artikulua. Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren izaera.

1.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua udalerriek autonomia-erkidegoko erakundeetan ordezkaritza izan eta parte hartzeko organoa da, eta duen eginkizuna tokiko erakundearen autonomia bermatzea da.

2.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatza atxikita egongo da, baina aurrekontuarekin zerikusia duten kontuetarako bakarrik.

3.- Bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala du. Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko erregelamendu propioa onartuko du Kontseiluak, eta lege honetan aurreikusitakoak garatuko dira erregelamendu horretan.

44. artikulua. Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren osaera.

1.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak Lehendakaria izango du buru, edo hark eskuordetutako Eusko Jaurlaritzako sailburua.

2.- Ordezkaritza handiena duen Euskadiko udalen elkarteko lehendakaria, edo horrek eskuordetutako pertsona, Kontseiluko lehendakariordea izango da.

3.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan kide kopuru bera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioeko ordezkariak eta euskal udalerrietakoek. Kontseiluaren erregelamenduak adieraziko du zenbat kide izango diren eta nola izendatuko dituzten; dena den, udalerrien ordezkariak ordezkaritza handiena duen udal-elkarteak izendatuko ditu, baina autonomia-erkidegoko udal-hauteskundeetan boto gehien lortu dituzten hiru alderdietakoak izango dira; denak alkate edo zinegotziak izan beharko dira.

4.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak, dagozkion eginkizunak aurrera eramateko, behar beste baliabide eta bitarteko izango du, ondo funtzionatuko duela bermatzeko.

45. artikulua. Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak.

Kontseiluak eginkizunok izango ditu:

- a) Autonomia-erkidegoko araugintzako ekimenetan eta plan eta programetan parte hartzea, tokiko erakundeen berezko eskumenei eragiten dietenean; plan eta programa horiek udalen eskumenetan izan dezaketen eraginari buruzko txostenak egingo dituzte, eta legezketasun eta egokitasunezko irizpideen arabera iritzia emateko aukera ere izango dute. Txostenok ez dira lotesleak izango.
- b) Proposamenak egitea, baita legegintzako ekimenaz baliaututa ere, berez udalerrienak diren eskumenei eragiten dien edozein gairi buruz.
- c) Administrazioen arteko elkarlana sustatzea, eta beste horrenbeste egitea autonomia-erkidegoko administrazioaren eta tokiko administrazioen arteko informazio-trukatzearekin.
- d) Udalerrien eskumenei eragiten dieten politika publiko sektorialez eztabaidatzea eta denen artean lantzea, eta dauden gobernu-mailetan zer nolako eragina duten ikustea.
- e) Lankidetzarako eta, beharrezkoa bada, koordinaziorako sistemak sustatzea, dauden gobernu-mailetako politika publikoen kudeaketa integratua izan dadin.
- f) Egoeraren batean tokiko erakundeen autonomiari kalte egiten zaiola uste bada, eta Konstituzio Auzitegian

konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua aurkeztu edo eskumen-gatazka dagoela adierazi behar bada, gai horren inguruko jarrera azaltzea.

g) Lege honetan berariaz ematen zaizkion eginkizunak.

46. artikulua. Berez udalerrienak diren eskumenei eragiten dieten legeen eta legegintzako dekretuen aurreproiektuak, edo erregelamenduen proiektuak eta plan nahiz programak prestatzen parte hartzea.

1.- Berez udalerrienak diren eskumenei (edo tokiko erakundeen interesei) eragiten dieten legeen eta legegintzako dekretuen aurreproiektuak, edo erregelamenduen proiektuak eta plan nahiz programak, kontsulta-txostena idazteko fasean daudenean, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilura bidali beharko ditu kasuan kasuko sailak.

2.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren baitan Politika Publikoen Udal Batzorde bat eratuko da, eta artikulua honetan zehaztutako eginkizunak izango ditu. Udal-batzorde horren lehendakaria ordezkari zabalena duen euskal udalen elkarteko lehendakaria edo horrek eskuordetutako pertsona izango da, eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluko kide diren udalerrietako ordezkariak baino ez dira izango bertako kide.

3.- Udal Batzordeak eskaria jaso eta hamabost egun igaro baino lehen egin beharko du txostena. Eskara bidaltzeko emandako aginduan txostena presazkoa dela esaten bada, behar bezala arrazoituta, orduan txostena egiteko epea zortzi egunekoa izango da.

4.- Udal Batzordeak proposatutako aldaketak oso-osorik onartzen baditu sailak, izapidetze-prozesuak aurrera jarraituko du.

5.- Proposamen guztiak edo horien zati bat onartzen ez baditu, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua bildu beharko da, organo horretako tokiko erakundeen ordezkariak eta gobernukoek gaiaz eztabaida dezaten; zortzi eguneko epea izango dute horretarako.

6.- Bi ordezkariak akordiorik lortzen ez badute, dena delako sailak izapidetzearekin aurrera jarraituko du, baina txosten bat idatzi beharko du, Udal Batzordearen txostenean proposatutako aldaketak zergatik ez dituen onartu zuzitzeko.

7.- Legeen edo legegintzako dekretuen aurreproiektuen kasuan, lege-proiektu edo legegintzako dekretuaren proiektu gisa onartu ostean, proiektuok parlamentura bidaltzean, ondorengoak ere erantsi beharko dira: Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren proposamenak

baztertzeko arrazoiak zuritzen dituen txostena, eta Kontseilu horrek eta Udal Batzordeak izandako bileraren edo bileren aktak.

VI. TITULUA: BESTE TOKI ERAKUNDE BATZUK ETA TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA.

I. KAPITULUA. TOKIKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

47. artikulua.- Beste toki-erakunde batzuk sortu, aldatu eta ezabatzea

1. Lurralde Historikoetako foru-organoek, beren lurraldearen barruan, hainbat udal biltzen dituzten erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko aukera izango dute, oinarrizko legerian, lege honetan eta kasuan kasuko foru-araudian esaten denarekin bat.

2. Dena delako toki-erakundea sortu, aldatu edo ezabatzeak autonomia-erkidegoko administrazioaren eskumenei eragiten badie, administrazio horretan dena delako gaien eskumena duen organoaren alde zuzentzeko txostena behar izango da.

48. artikulua.- Elkarte bidezko toki-erakundeak

Udalerrien mankomunitateek eta toki-erakundeak biltzeko beste elkarte modu batzuek, obra eta zerbitzu jakin batzuk elkarrekin burutzeko sortzen direnean, eta Lurralde Historiko bakar batekoak direnean, toki-erregimenari buruzko oinarrizko araudia eta kasuan kasuko Lurralde Historikoko foru-organoek emandako arauak bete beharko dituzte, eta baita lege honetatik ezartzekoa zaiena ere.

49. artikulua. Lurralde Historiko bat baino gehiagokoak diren udalerrien mankomunitateak.

2.- Lurralde Historiko bat baino gehiagokoak diren udalerrien mankomunitateek artikulua honetan xedatutakoa bete beharko dute.

2.- Mankomunitate batean bildu nahi duten udalerrietako udalek udalbatzako legezko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko dute, erabakia hartzeko.

3.- Mankomunitatearen estatutuak elkarte horren sustatzaile izan diren udalerririk guztietako alkate eta zinegotziek onartuko dituzte, batzarrean bilduta, gehiengo absolutuaren bidez, alde zuzentzeko Foru Aldundien txostena jaso ostean. Hori egin ondoren, mankomunitatea osatzen duten udalen udalbatzek onartu beharko dituzte, aurreko paragrafoan aipatutako gehiengoaren bidez.

4.- Estatutuetan gutxienez ondorengo puntuak jaso beharko dira:

a) Mankomunitatearen izena, egoitza eta osatzen duten udalerrien zerrenda.

b) Zein helburu eta eskumen dituen.

c) Gobernu- eta administrazio-organoak zein diren, nola osatuko diren, eta bertako kideak nola izendatu eta kenduko dituzten kargutik.

d) Gobernu-organoen funtzionamendurako arauak, eta baita administrazioaren kudeaketakoak eta gerentziakoak, halakorik balego.

e) Mankomunitatea osatzen duten udalerrien ekarpenak eta erakundeak izango dituen gainerako baliabide ekonomikoak.

f) Mankomunitateak izango duen iraupena.

g) Estatutuak aldatzeko prozedura, lege honetan ezarritakoaren arabera.

h) Udalerriak mankomunitateak sartu eta bertatik irteteko prozedura, eta udalerriok biltzeko dauden aukerak, mankomunitatearen helburuetako bat edo batzuk betetzeko.

i) Mankomunitatea ezabatzeko arrazoiak eta prozedura, eta likidazioari buruzko arauak.

j) Udalerriek ordaindu beharreko kalte-ordainen erregimena, mankomunitatearekin dituzten betebeharrak bete ezean.

k) Udalerriren batzuek mankomunitatetik irteten badute eta horiek emakidan utzitako ondasunen bat badago, ondasunok aurrerantzean izango duten erregimen juridikoari buruzko aurreikuspenak.

5.- Jabetza kentzeko ahala derrigorrez okupatu beharreko ondasunak dauden lekuko udalak izango du, beti mankomunitateak eskatuta eta bere mesederako; ondasunok Lurralde Historiko bereko udalerrri bat baino gehiagotan badaude, Foru Aldundiak izango du ahal hori, eta autonomia-erkidegoko administrazioak Lurralde Historiko bat baino gehiagoko udalerrietan badaude ondasunak.

6.- Mankomunitateko gobernu-organoak zein diren, zein eginkizun izango duten eta funtzionamendu-erregimena zehazteko orduan tokiko erakundeen autonomia errespetatu behar bada ere, mankomunitatearen estatutuek bermatuko dute udalen ordezkari-organok, duen osaeragatik, kontrol-lana egin ahal izatea eta ziurtatzea udalerrri guztietako hautetsiak benetan egotea; dena den, udalerrri batek ere ezin izango du gehiengo absolutua izan. Udalen ordezkari-organoko ordezkariak udalerrri bakoitzak izendatuko ditu, azken udal hauteskundeetan lortutako emaitzekin proportzionalki.

7.- Autonomia-erkidegoko udalerriek beste autonomia-erkidego batzuetakoak diren udalerriekin mankomunitateetan biltzeko aukera izango dute, lege honetan ezartzen den moduan eta, era berean, gai honi buruz beste autonomia-erkidegoko edo erkidegoetako legerian esaten denaz bat.

50. artikulua. Udal eta toki mailako elkarlanerako sareak.

1.- Udalerriek eta gainerako toki-erakundeek elkarlanean aritzeko autonomia-erkidegoaren mailako edo maila apalagoko beste sare batzuez baliatzeko aukera izango dute, ezartzekoa den araudiarekin bat.

2.- Autonomia-erkidegoaren mailako, edo Lurralde Historiko bat baino gehiagoko udalerrri edo erakundeen udal-sareak edo toki-erakundeen sareak pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuek osatuko dituzte, baldin eta udalerrien eskumenak gauzatzea bermatzeko badira, eta herritarren interesen alde egiten badute.

3.- Lurraldeko lankidetzarako sareek edo sare horietako kide batzuek nortasun juridikoa duten erakundeak sortzeko aukera izango dute, beren helburuak betetzeko.

4.- Udal-sareak edo toki-erakundeen sareak hitzarmen bidez eratuko dira. Euskal udalerrrien elkarteek udal-sareak sortzea sustatuko dute, eta horietan sartzeko aukera izango dute, artikuluko 2. paragrafoan esaten den moduan.

51. artikulua.- Partzuergoak

1.- Udalerriek eta gainontzeko toki-erakundeek partzuergoak eratu ahal izango dituzte beste administrazio publiko batzuekin, guztien intereseko helburuak lortzeko. Era berean, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek ere izango dute partzuergoan parte hartzeko aukera, baldin eta partzuergoko administrazio publikoen interesekin bat datozen interes publikoak badituzte erakunde pribatuok.

2.- Partzuergoak toki-erakundetzat hartuko dira lege honetan esaten direnetarako, baldin eta kide diren toki-erakunde guztiak edo gehienak lege honen arabera udalerrien eskumenekoak diren zerbitzuak eskaini edo jarduerak burutzeko elkartzan badira.

3.- Partzuergoaren eskumeneko zerbitzuak kudeatzeko, toki-araubideari buruzko legedian aurreikusitako edozein era erabili ahal izango dute partzuergoak.

4.- Partzuergoan bildu nahi duten zuzenbide publikoko erakundeak Lurralde Historiko bakar batekoak badira, Lurralde Historiko horretako foru-organoen araudiaz bat jardun beharko da partzuergoa eratzeko.

52. artikulua. Lurralde Historiko batez gaindiko partzuergoak.

1.- Partzuergoa osatzen duten zuzenbide publikoko erakundeen lurralde-esparruak Lurralde Historiko bat gainditzen badu, baina autonomia-erkidegoaren barruan bada, artikuluko honetan esaten dena bete beharko du.

2.- Partzuergo bat eratu edo batean bildu nahi duten toki-erakundeetako gobernu-organo nagusiek horren aldeko akordioa hartu beharko dute, legezko kideak direnen gehiengo absolutuak aldeko botoa emanda. Partzuergoan sartu nahi duten gainerako erakundeen kasuan, aurreko paragrafoan aipatzen den akordioa hartzeko, beren estatutuetan edo barne-funtzionamenduko arauetan esaten denaz bat jardun beharko dute.

3.- Partzuergoaren estatutuak partzuergoa osatu nahi duten erakunde guztien ordezkariak osatutako batzorde batek landuko ditu, eta partzuergoari bildu den erakunde bakoitzak bozkatu ostean onartuko dira, azkenik. Toki-erakundeen kasuan, estatutu horiek

onartzeko, aurreko paragrafoan aipatzen den gehiengoa behar izango da.

4.- Partzuergoaren estatutuek funtzionamendurako arauak ezarriko dituzte, eta egin beharreko egokitzapenak eginda, mankomunitateentzat XXXX. artikuluan aurreikusten diren ezaugarriak zehaztuko dituzte.

53. artikulua.- Lurralde Historiko baten lurralde-eremua gainditzen duten metropolialdeak.

Eusko Legebiltzarraren lege bidez, Lurralde Historiko batena baino gehiagoko lurralde-eremua hartuko duten metropolialdeak edo udalerrri arteko beste erakunde batzuk sortzeko aukera egongo da. Metropolialde horiek sortuko dituen legeak erakundeok zer nolako eskumenak izango dituzten, zein organok osatuko dituzten eta erregimen juridikoari buruzko gainontzeko osagaiak ere zehaztuko ditu.

II. KAPITULUA: ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA.

54. artikulua. Tokiko zerbitzuen kudeaketa

Estatuko oinarrizko legerian eta lege honetan ezarritakoa bete beharko baba ere, tokiko zerbitzu publikoen erregimen juridikoa eta kudeaketa-moduak kasuan kasuko udalerriek zehaztuko dituzte, araugintzarako eta autoantolaketarako dituzten ahalez baliaturik. Zerbitzua nola araututa egongo den zerbitzua eskaintzen hasi aurretik arautuko dute toki-erakundeek, eta gutxienez ondorengo kontuak argitu beharko dira: zerbitzua eskaintzeko moduak, zerbitzuaren egoera, finantziazioa eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

55. artikulua.- Kudeaketa-moduak.

1.- Tokiko zerbitzu-publikoak zuzenean kudeatu ahal izango dira, erakundeak berak eginkizun hori hartuta, edo horretarako sortutako beste erakunde edo elkarte batzuen bidez. Zeharka kudeatzeko aukera ere egongo da, indarrean den legerian aipatzen diren kontratu- edo lankidetzabideak baliaturik.

2.- Zuzeneko kudeaketa ondorengo aukeretakoren batekoa izango da:

a) Tokiko erakundeak berak kudeatzea.

b) Erakunde publiko batek eskaintzea zerbitzua, dela erakunde autonomoa edo enpresa-erakunde publikoa.

c) Tokiko merkataritza-sozietate baten bidez eskaintzea, sozietate horren kapitala oso-osorik toki-erakundearena edo toki-erakundearen ente publikoren batena bada.

d) Tokiko fundazio publiko baten bidez eskaintzea, ezartzekoa den legeriaren zehazten denaren arabera.

3.- Aipatu diren kudeaketako aukera horiek ondorengoak bete beharko dituzte: ezartzekoa zaien estatuko oinarrizko legeria, lege honetan aurreikusitakoa, eta kasuan-kasuan onartutako udal-araudia.

VII. TITULUA UDAL FINANTZIAZIOA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

56. artikulua. Euskal toki-ogasuna.

1.- Euskadiko udalerriek eta gainontzeko toki-erakundeek ekonomiaren arloan izango dituzten eskubide eta betebeharren multzoak osatuko dute euskal toki-ogasuna.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen ogasunak Lurralde Historikoetako foru-organoez arlo horretakoak diren gaiei buruz onartutako xedapenak bete beharko ditu, eta baita toki-erakundeek berek erregelamenduak egin eta beren buruak antolatzeko duten ahalaz baliatuta onartutako arauak ere.

57. artikulua.- Euskal toki-ogasunen jarduerari buruzko oinarrizko printzipioak.

1.- Euskal toki-ogasunek ondorengo oinarrizko printzipioekin bat jardun beharko dute:

a) Finantza-autonomia, hau da, ekonomia, finantzak eta aurrekontuak antolatu eta kudeatzeko ahala izango dute, baina Lurralde Historikoetako foru-organoez gai horietan dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

b) Finantza-nahikotasuna, hau da, toki-ogasunek behar beste baliabide izan beharko dute lege honek, Eusko Legebiltzarraren beste lege batzuek edo Lurralde Historikoetako foru-arauek ematen dizkieten eskumenak gauzatzeko.

2.- Era berean, euskal toki-ogasunek ondorengo printzipioak bete beharko dituzte, beren baliabideak kudeatzerakoan: legezketasun-, objektibotasun-, ekonomia-, eraginkortasun-, eragimen-, kontrol-, kutxaren batasun- eta arrazionaltasun-printzipioak.

3.- Euskal toki-ogasunek beren aginpideak aurrera eramaterakoan, Euskadiko ogasun nagusiarekin eta Lurralde Historikoetako foru-ogasunekin koordinaturik, elkartasunez eta erantzukizunak banatuz jardungo dute.

58. artikulua.- Baldintzarik gabeko finantziazioa.

1.- Orokorrean, udalerrien eta gainontzeko toki-erakundeen finantziazioa baldintzarik gabekoa izango da.

2.- Gorago esandakoa hala izanik ere, Eusko Legebiltzarraren lege baten edo Lurralde Historikoen foru-arau baten bidez, finantziazioan baldintzak jarri ahal izango dira, baina ondorengo irizpideak bete beharko dira kasu horietan:

a) Araudi horren ondorioz autonomia-erkidegoko edo Lurralde Historikoetako erakundeek udalerriei zuzenduta egingo dituzten planek, lehentasunak ezartzeko orduan, udalerriek ere parte hartu ahal izatea bermatuko dute, eta udalerrien interesak autonomia-erkidegokoekin edo Lurralde Historikoetakoekin bateratzen saiatuko dira.

b) Kudeaketa ekonomikoa urte anitzekoa izatea erraztuko da, eta toki-erakundeak inbertsioak nola egin planifikatu ahal izango du, eta erabaki edo hautatzeko orduan, udaleko jarduera-planak eta lehentasunak izango ditu kontuan.

c) Baldintzatutako finantziazio-sistemen bidez eskainiko diren zerbitzuak hartzaileentzat kalitatezkoak direla bermatu beharko da, eta baita zerbitzua eskaintzen jarraituko dela ere.

59. artikulua.- Udalerrien betebeharrak eta zerbitzu berrien erregimena.

1.- Eusko Legebiltzarraren lege bat behar izango da udalerriei edo gainontzeko toki-erakundeek betebeharrak edo zerbitzu berriak emateko, horien ondorioz finantza-zama handiagoa jasan behar badute.

2.- Betebeharrak edo zerbitzu berri horiek zehazten dituen lege edo foru-arauan, aldi berean, beharrezko finantziazio-bideak zeintzuk izango diren zehaztu beharko da beti, horrela betebeharrak beteko dela edo zerbitzuak eskainiko direla bermatzeko.

3.- Era berean, euskal udalerrien eta gainontzeko toki-erakundeen autonomia- eta nahikotasun-printzipioak bermatzeko, lege-proiektuarekin batera joango den txosten ekonomikoan, egoera berri horrek toki-erakundeen aurrekontuetan izango duen eraginari buruzko analisi bat ere jasotzeko da.

4.- Arau horrek berak zehaztu beharko du zein bide eta prozedura egongo diren, finantza arloko autonomia- eta nahikotasun-printzipioak errespetatuta ezartzeko. Arauak ez baditu inondik ere zehazten gorago aipaturiko bide eta prozedura horiek, betekizun hori ez betetzeagatik, toki-erakundeek, egoera berriak dakarren gastuaren gehikuntzagatik aurrekontuari eragiten bazaio, ez dute arau berria aplikatu beharrik izango. Finkatzen diren baliabide eta prozedurekin bat ez etortzea ez da nahikoa arrazoi izango araua aplikatzetik salbuesteko, nahiz eta araua aurkatzeko eskubidea izango den.

60. artikulua.- Eskubideak eskuratu, zertarako zehaztu eta preskribitzeko erregimena.

1.- Toki-ogasunek eskubideak eskubideotako bakoitza arautzen duten arau berezietan xedatutakoaz bat eskuratuko dituzte.

2.- Sarrera bakoitzaren araudian bestela ezartzen ez bada, sarreraren kopurua horren titularra den erakundearen betebeharrak multzoa finantzatzeko erabiliko da. Helburu zehatzetarako liberalitateetatik datozen sarrerak direnean, ez da beharrezkoa izango

berariazko xede-zehaztapena egitea, baldin eta unean-unean indarrean dagoen araudiari jarraiki onartu badira liberalitateak.

3.- Toki-ogasunen eskubideek preskribitu egingo dute, zuzenean edo osagarri moduan zehazki ezartzekoak zaizkien xedapenetan esaten den gisan.

61. artikulua.- Betebeharrak eskuratzea eta eraginkortasuna.

1.- Euskadiko udalerriek eta gainontzeko toki-erakundeek ezartzekoak zaizkien legeek zuzenean agintzen dizkieten betebeharrak bere gain hartuko dituzte, eta baita ordenamendu juridikoarekin bat egiten duten egitate, egintza eta negozio juridikoetatik datozenak ere.

2.- Baliogabeak izango dira erabat toki-erakundeek emandako xedapen orokorrak, ebazpenak eta administrazio-egintzak, baldin eta horien bidez hartu nahi diren gastu-konpromisoak dena delako toki-erakundearen aurrekontuko gastuen egoeran baimendutako kreditu mugatzaileen zenbatekoak baino handiagoak badira.

3.- Toki-erakundeen eta beren erakunde autonomoen kargu egitekoak diren ordainketa-obligazioak efektiboak izango dira aurrekontuak gauzatzetik datozenean, epai judizial irmoek hala erabakitzen dutenean eta diruzaintza-eragiketak gauzatzetik datozenean.

62. artikulua.- Zorpetzeko eta bermeak emateko erregimena.

Lurralde Historikoetako foru-organoek emandako arauetan aurreikusitako moduan, euskal udalerriek eta gainontzeko toki-erakundeek, horien erakunde publikoek, atxikitako erakundeek nahiz horien mendeko merkataritzako sozietateek era guztietako kreditu-eragiketak hitzartzeko aukera izango dute, eta baita eragiketa horiek ziurtatzeko edo horien arriskua edo kostua murriztu edo dibertsifikatzeko finantza arloko beste operazio osagarri batzuk egiteko aukera ere.

II. KAPITULUA: EUSKAL UDALERRIEN ETA GAINONTZEKO TOKI-ERAKUNDEEN FINANTZIAZIOA.

63. artikulua. Udalerriek zerga itunduetan izango duten partaidetza.

1.- Ekonomia Ituna dela-eta Lurralde Historikoek eskuratzen dituzten tributuen errendimenduan parte hartuko dute toki-ogasunek, Estatuari ordaindu beharreko kupoa, autonomia-erkidegoari egin beharreko ekarpena eta ekarpenei buruz indarrean den legerian aipatzen diren gainerako kontzeptu guztiak kendu eta gero.

2.- Parte hartze hori ondorengo parametroen arabera zehaztuko da:

a) Udalerriak eta gainerako toki-erakundeak zein eskumen eta zerbitzuren titularrak diren, indarrean den ordenamendu juridikoaren arabera.

b) Toki-ogasunen tributuen errendimenduak eta gainontzeko diru-sarrera propioak.

3.- Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak baliabideak zein diren zehazteko eta udalerriek tributuo itunduetan parte hartzeko kohefizientea zein izango den finkatzeko metodologia onartuko ditu. Metodologia hori azaroaren 25eko 27/1983 Legean aurreikusten den Ekarpenen Lege-proiektuan jasoko da, eta horrela, onartzeko erregimena eta iraunaldia Ekarpenen Legearena bezalakoa izango da.

64. artikulua.- Lurralde Historiko bakoitzeko partaidetza zehaztea.

1.- Lurralde Historiko bakoitzean horien baitako toki-erakundeek zenbateko parte hartzea izango duten zehaztea Lurralde Historiko horietako foru-organoen eskumena da, eta ondorioz, askatasun osoz baliatuko du eskumen hori.

2.- Dena den, Finantzen Euskal Kontseiluak, politika fiskaleko gomendio gisa baino ez, banaketa egiteko irizpide batzuk zehaztuko ditu, eta irizpideak berdinak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko guztietarako; finantza-nahikotasunaren printzipioa bete, ahalegin fiskala sustatu, gastu arruntari buruz berdintasunezko eta elkartasunezko politika orokorra lortzen saiatu eta gastu arrunten hazkundea neurtua izan dadila bilatuko dute irizpideok.

3.- Finantzen Euskal Kontseiluak ondorengoak kontuan izanda zehaztuko ditu irizpide horiek:

a) Batez ere biztanle-kopurua kontuan izanda.

b) Beste egoera batzuk:

- . Zentro publikoetan dagoen ikasle-kopurua.
- . Udalerriaren ahalegin fiskala.
- . Lurralde Historiko bakoitzeko hiriburua izatea.
- . Inmigrante-kopurua.
- . Dispertsioa.
- . Langabezia.

4.- Lurralde Historikoek irizpide horietatik aldentzeko aukera izango dute, eskumena duen foru-organoak arrazoiak emanda hartutako akordioaren bidez.

65. artikulua.- Aplikazioa eta likidazioa.

1.- Aurreko artikuluetan xedatutakoaz bat udalerriei eta gainontzeko toki-erakundeei dagokien finantziakzioa tokiko erakunde horien ogasunaren baliabide arrunta izango da, haien eskumenekoak diren zerbitzu guztiei aurre egin eta eskaini ahal izateko, betiere ezartzekoa den araudiaz bat.

2.- Ekitaldi bakoitzerako Lurralde Historiko bakoitzean udalerrien eta gainontzeko toki-erakundeen esku jarritako zenbatekoak behin betiko kitatuko dira ekitaldia amaitzean, hitzartutako tributuengatik nahiz kontuan hartu beharreko gainontzeko diru-sarreretatik bildutakotik lortutako diru-sarreraren datu errealekin bat.

66. artikulua.- Itundu gabeko zergetan parte hartzea.

Udalerriek eta gainontzeko toki-erakundeek itundu gabeko zergetan izango duten parte hartzea Ekonomia Itunean eta ezartzekoa den araudi berezian esaten denaren arabera izango da.

VIII. TITULUA: BESTE XEDAPEN BATZUK.

67. artikulua.- Zigortzeko jardunbidea.

1.- Zehatzeko prozeduretan, aukera egongo da udal-ordenantzetan isunen ordezkari tokiko komunitatearen aldeko lan baliokideak eta arau-haustearen larritasunarekin proportzionalak egitea arautzeko, gaiak eragiten dionak aldeztu aurretik onartzen bada, eta organo zehatzaileak hala erabakitzen bada.

2.- Beste batzuek egin ditzaketen administrazioko arau-hausteei aurrea hartzeko legezko betebeharrak duten pertsona fisiko edo juridikoak dena delako arau-haustearen ondoriozko kalteen erantzule solidarioak izango dira, halakorik gertatzen bada.

68. artikulua.- Euskal udalen elkarteak negoziakzio kolektiborako legitimatzea.

1.- Euskal udalen elkarteak, oinarrizko legerian esaten denaz bat, legitimaturik egongo dira euskal udalerrietako eta gainontzeko toki-erakundeetako langile publikoekin negoziakzio kolektiboaz aritzeko.

2.- Euskal udalerriak, horretarako hartutako akordioaren bidez, euskal udalen elkarteek aurrera eramango duten negoziakzio kolektiboaren aurretik atxiki ahal izango dira Hala eginez gero, akordioa izenpetzen den unetik, atxikitako toki-erakundeak hartuko diren akordioei loturik egongo dira.

3.- Euskal udalerriak Euskal Udalen Elkarteak burututako negoziakzio kolektibora eta horren ondoriozko akordioetara atxiki ahal izango dira.

69. artikulua.- Elkarrekin burututako lan-eskaintza publikoak eta hautaketako prozedura komunak.

1.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin horretarako sinaturiko hitzarmenaren bidez, eta kasuan kasuko udalerrri edo toki-erakundeak aldeaz aurretik hartutako akordioaren bidez, udalerrietako lan-eskaintza publikoak autonomia-erkidegokoarenean edo, hala behar duenean, Lurralde Historikoenean sartu ahal izango dira.

2.- Era berean, udalerrriak edo kasuan kasuko toki-erakundeak aldeaz aurretik hala erabakita, aukera egongo da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin hitzarmen bat izenpetzeko, hain zuzen ere toki-erakundeetako funtzionario edo lan-legepeko langile bihurtzeko hauta-proben deialdiak erakunde horrek berak egin ditzan. Hitzarmen horietan berariaz jasota egon beharko da zerbitzu horien ondoriozko betebeharrak finantzarioak zein diren.

Xedapen gehigarri bakarra. Ordezkaritza handiena duen euskal udalen elkarteak.

1.- Ordezkaritza handiena duen euskal udalen elkarteak izango da Euskadiko erakundeetan ordezkaritza publikoa beteko duena, hala erabakiko den esparru guztietan.

2.—Ordezkaritza handiena duen euskal udalen elkarteak lege honetan aurreikusitakoaren arabera emango zaizkion eginkizun guztiak izango ditu, beti.

Xedapen Iragankor Bakarra: Gaitasun nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen erregimen juridikoa.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen bigarren xedapen gehigarria garatuko duen funtzio publikoari buruzko araudi autonomikoa indarrean sartu arte, gaitasun nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioek EAEn izango duten erregimen juridikoa gaur egun indarrean dagoena izango da, betiere ondorengo arauak kontuan izanda:

1. Gaitasun nazionala duten funtzionarioen eskala osatzen duten azpieskaletara sartzeko hautaprobak gainditu dituzten hautagaiak funtzionario izendatzeko aginduak funtzio publikoaren arloko eskumenak dituen saileko sailburuak emango ditu.
2. Administrazio-egoerari buruzko adierazpenak eta karrera profesionalarekin zerikusia duten gorabehera guztiak funtzio publikoko zuzendariaren ebazpen bidez egingo dira, eskumen hori beste organo bati eman ez zaion guztietan.
3. Organo hauek izango dute diziplina-espedienteei hasiera emateko eskumena:

- a) Toki-erakundeko alkate edo lehendakariak beti, edo aurreko horrek eskuordeturik, langileen zuzeneko burua denak. Toki-erakundeak aukera izango du autonomia-erkidegoko administrazioko funtzio publikoko zuzendaritzari diziplina-espeditenteak izapidetzeko izapidegilea izenda dezala eskatzeko, hori egiteko giza baliabiderik ez baldin badu.
 - b) Administrazio autonomikoko funtzio publikoaren zuzendaritza, zerbitzuak ematen ari denaz bestelako erakunde batean egindako hutsegiteak direnean, baldin eta bi erakundeok EAEkoak badira, edota salatutako egintzen larritasuna dela eta, hutsegite horrek kargu-gabetzea edo zerbitzutik kentzea eragin dezakeenean.
4. Diziplina-espeditentea ebazterakoan, hutsegite larrien edo oso larriengatik zehapenak ezartzeko organo eskudunak dira honako hauek:
- a) Funtzio publikoaren arloko eskumena duen sailburua, kargu-gabetzea eta zerbitzutik bereiztea dakarten zehapenak ezarri behar direnean.
 - b) Toki-erakundeko udalbatza, aurreko paragrafoan ageri ez diren zehapenak direnean.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

1.- Indarrik gabe geratzen dira honako arau-xedapen hauek:

- a) 326/1994 Dekretua, uztailaren 28koa, Euskadiko Udal Kontseilua sortzen duena.
- b) 364/1987 Dekretua, abenduaren 1ekoa, toki-erakundeek ikur bereizgarriak hartzeko edo aldatzeko prozedura onartzeko dena.
- c) 271/1983 Dekretua, abenduaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien izenak aldatzeko prozedura finkatzen duena.

2.- Indarrik gabe geratzen dira, era berean, lege honetan aurreikusitakoari kontra egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapenak.

Azken xedapenetatik lehenengoa. Autonomia-elkarte osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako foru-organoen arteko harremanetarako azaroaren 25eko 27/1983 Legeari aldaketak.

Bat.- Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren eta udalerrien funtzionamendua.

Beste paragrafo bat gehitu diogu azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28. artikuluko 1. atalari. Hauxe dio:

“Finantza Publikoen Euskal Kontseilua, halaber, Euskadiko udal-mailako erakunde guztien eta beren sektore publikoaren jardun finantzarioa Euskadiko Ogasun Nagusiarekin batera lantzeko sortu da, batez ere, baliabideak zehazteko eta udal-erakundeek hitzartutako tributuetan zenbateko partizipazio-koefizientea izango duen erabakitzeko erabiliko den metodologia bien artean finkatzeko, lege honen 63. artikulua xedatzen duenaren arabera; horrez gain, lege honetako 64. artikuluan adierazten den zeregina ondo betetzeko ere sortu da kontseilua.”

Bigarrena. Euskal udalerriek Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan daukaten parte-hartzea.

Beste paragrafo bat gehitu diogu azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28. artikuluko 4. atalari. Hauxe dio:

“Udal-mailako edozein ordezkari hala eskatzen badu ere bilduko da Kontseilua, ordezkari horri interesatzen zaion kontuaz aritzeko.”

Hiru. Beste paragrafo bat gehitu diogu azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28. artikuluari. Hauxe dio:

“10. Nolanahi, artikulua honetako 2. eta 5. ataletan xedatutakoa alde batera utzita, euskal udalerrietako hiru ordezkari jarriko dira Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan, errotuen dauden Euskal Udalerrien Elkarteek izendatuta. Honela jokatu behar da ordezkari horiek kontseiluan jartzeko. Euskal udalen ordezkariaren pluraltasun politikoa bermatze aldera, izendapen horiek autonomia-erkidegoko udal-hauteskundeetan boto gehien jasotako hiru indar politikoetako kideetara bideratu behar dira; edozein kasutan ere, hautatutako zinegotzi izan behar dute izendapena jasotzeko.

Udaletako ordezkariak hitz egiteko eskubidea bai baina botoa emateko eskubiderik gabe izango dira Kontseiluan, non eta ez lantzen diren kontuak ez diren zuzen-zuzenean eragiten dietenak. Alabaina, eskubide oso kide izango dira baliabideak zehazteko eta udal-erakundeek hitzartutako tributuetan zenbateko partizipazio-koefizientea izango duen erabakitzeko erabiliko den metodologia finkatzeko unean (63.3 artikulua); lege honetako 64. artikuluan

jasotakoa taxutzeko unean, eta, udalerriei zuzenean eragiten badie, Lurralde Historikoen Legearen bigarren xedapen gehigarriaren hirugarren zenbakian jasotakoa betetzeko unean.

Udal-ordezkariek hitza eta botoa daukatenean, akordioak hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da akordiook gehiengo absolutuaz onartzea, betiere, gehiengo horrek maila instituzional bakoitzeko, gutxienez, ordezkaritza bat daukala.

4. Beste paragrafo bat gehitu diogu azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28. artikuluari. Hauxe dio:

“11. Kontseiluak badauka aholkua eskatzerik eta beharrezko iruditzen zaizkion datuak biltzerik, bai euskal udalerrietatik bai eta ordezkaritza handiena daukan udal-elkartetik ere. Euskal udalerrriak eta ordezkaritza handiena daukan udal-elkartea, biak ala biak, behartuta daude eskatutako datuak eta bestela informazio guztia emateko, artikulua honetako aurreragoko zenbakietan Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta Foru Aldundiei jarritako baldintza berdinetan.

Azken xedapenetatik bigarrena.- Sistema berria martxan jartzea

Lege hau indarrean sartu eta bi hilabeteko epean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari dei egingo zaio udaletako aholkulari berriak izenda ditzan, eta “Ekarpenen eta partizipazioen Legea” delakoaren proposamen berria onar dezan, lege honek halaxe agintzen duenez. Lege horrek aurrekontuaren hurrengo ekitaldirako indarrean egon beharko du, gaur egun indarrean den Ekarpunen Legeari indarrean egoteko zenbat geratzen zaion alde batera utzita.

Azken xedapenetatik hirugarrena.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren Erregelamendua prestatzea

Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren Erregelamendua prestatzeko, lege hau indarrean sartu eta bi hilabete pasa aurretik, lehenengo Kontseilua eratuko da. Sei kide izango ditu lehenengo honek: hiru, ordezkaritza handien daukan Euskal Udalerrien Elkarteak izendatutakoak, euskal udalerrien ordezkaritza, eta beste hiru Eusko Jaurlaritzako lehendakariak izendatutakoak. Kontseiluaren zeregina izango da Kontseiluaren Erregelamendua prestatu eta onartzea, bi hilabeteko epean.

Azken xedapenetatik laugarrena.- Garatu eta betetzeko gaikuntza

Ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari lege hau garatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapenak sortzeko, dagozkion eskumenen esparruan.